

aikor!

txorie aldizkaria



Geldialdia
Done
Jakue
Bidean

SARRIKOLA OGITECIA



EUSKAL PASTELA - BASERRIKO OGIA - BIZKOTXOAK ETA HAINBAT TARTA



Sarrikola, z/g Larrabetzu
Tel: 94 455 83 37
Sakeleko tel: 619 78 58 84

GIDABAIMENIK EZ DA BEHAR



DIESEL INJEKZIOA

txiki auto

Enekuri, 6 (Deustu)- 48014 Bilbo
Telf/ Faxe: 94 655 99 08



Argitaratzailea: TOTOAN, Txorierriko Euskara Elkarte Federazioa
(Lagatzu, Zorritzeta, Arrekikili, Tximintx)
Tf.: 94 452 34 47
e-posta: aikortxori@yahoo.es
www.aikor.com

Zuzendaria: Xabier Goienetxe

Erredakzio burua: Itxaso Marina

Erredakzio taldea: Fernando Larrondo, Jose Angel Mentxaka, Maite Lekerika, Gaizka Eguskiza, Amagoia Guezuraga, Belen Gana, Pospolin, Jon Goikouria, Eder Merino eta Aritz ta Nagel

Kolaboratzaileak: Joseba Gotzon, Ixone Zubieta, Iñaki Bilbao, Asier Oruetxebarria, Juan Luis Goikoetxea, Juanxu Bilbao eta Laura Martinez.

Zuzentzaileak: Alberto Mtz. de la Cuadra, Iñaki Astorkiza eta Jagoba Zallo

Publizitatea: Arantz Abutegi

Banaketa: Aikor!

Maketatzailea: Gaizka Eguskiza

Inprimategia: Gertu

Ale kopurua: 5.300

Lege gordailua: BI 137-02 ISSN 1578-9322

AIKOR! aldizkariak ez dau bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen edota eritxien erantzukizunik.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA

Hizkuntza Politikaren Sailburuordetza



Bizkaiko Foru Aldundia
Diputación Foral de Bizkaia



diruz lagundutako aldizkaria

12 Larrabetzuko jaiak



30 Goierri sokatira taldea



12 Unai Kastresana



25 Lezamako Andra Mari jaiak



14 Derioko lehen kazetari euskaldunak



AURKIBIDEA

4Eritxia 5Laburrak eta albisteak
12Unai Kastresana 14Derioko lehen
kazetari euskaldunak 21Larrabetzuko Andra
Mari jaiak 25Lezamako Andra Mari jaiak
30Goierri sokatira taldea32Osasuna
33Teknologia 34Txorierri ezagutu
36Sukaldaritza 37Denborapasa
38Agenda

ZAMUDIOKO ESTANKOA

Tabakoak, tinbrea eta opariak



Talleri kafea. 5 ZAMUDIO
Tfnoa: 94 452 12 73

Construcciones-Reformas

IÑIGO BARCENA

Igeltserotza orokorra

Arretentze kalea, 11 - 1.º urte
ZAMUDIO
Tf/Fax: 94 452 29 10
Móvil: 915 10 13 17



luz zamudio
ARGI APARATUAK

Nekazan kalea, 1 (Iorja)
Telefonoa eta faxa: 94 452 11 60
48170 Zamudio (Bizkaia)

Glamour



JOSEBA GOTZON
(Kantautorea)

Hitz berezi hori sarritan entzun dugu eta garai batetik hona telebistetan kazetarien ahotan dago egunero. Orain dela urte asko hitz horren bitartez jende aberatsa ezagutzen genuen, jantzi garestiak janzen zituztenak, eta, gainera, estiloarekin. Baina hitz egiterakoan ere zer bait ezberdina nabaritzen zitzairen. Are gehiago, haren munduan sartzea ezinezkoa zen, mundu itxi bat zen-eta: enpresariak, aktoreak, politikariak, intelektualak, ... Luxuaren eskutik ezagutu dugu glamourra betidanik.

Bizi garen mundu honetan hitz hori hutsaldu egin da gauza askogatik: gaur, biztanleen arteko gizarte diferentziak murriztu baitira, eskertzekoa dena; industria desagertzen joan baita eta bera-

“Demokraziak bere klase berezi propioa sortu du, lan egiteko oposaketarik egin behar ez duena”

rekin batera industrialak, enpresariak eta hainbat familia dirudun; gizarteak edozein biztanleri aukera asko eman baitio lanbide anitzetan; “demokrazia” heldutakoan partidu politikoak botere ekonomikoa menperatzen hasi baitziren eta haren konfiantzazko lanpostuak sortzen, mesedeak ordaintzen, ... eta beste mundu itxi bat lantzen.

Gaur egun gizarte-maila erdiko edo zein pertsona kontsumismoan sartuta ikus dezakegu, nazioarteko jantzi marka garestienetarikoz batzuk janzen eta haren posibilitateen gainetik dagoen bizitzaren erritmo batekin; baina orain dela urte batzuk mota ezberdin bat dago: aberats eta dirudun bihurtu direnak: kotxe garestiekin, egundoko etxeak (edo etxe batzuk) erosten, kontuak milioika euroz beteta, ... Hauetako askok politikaren bidez lortu dute, eta soldata batekin, gainera!

Hemen guztiek (edo gehienek) lanpostu bat lortzeko oposaketak egin behar dituzte, titulu bat eskuratu behar dute, haren ikasketak gaurkotu behar izan dituzte, ... eta zorte onarekin lan egiten hasten dira.

Baina gaur egun “demokrazia” honetan denak ez gara berdinak. Demo-

kraziak bere klase berezi propioa sortu du, lan egiteko oposaketarik egin behar ez duena. Haien artean lanpostuak banatzen dira, batetik bestera, oposaketarik gabe. Bere soldatek ez daukate konbeniorik, itunik, ezta beren karguak betetzeko tituluak ere... legez kanpo daude. Hauteskundeetan beren programak gero eta hutsagoak dira baina inoiz ez da gauza bat agertzen: soldata (alkateak, diputatuak, zinegotziak, buru sailak, ...)

Gizarteko klase berri hau “sarao” gehienetan agertzen dira prentsan agertzeko, inportanteak eta handiak sentitzeko, ... baina ibiltzerakoan, ahoa zabaltzen duten bakoitzean, jaterakoan, eskuak mugitzerakoan, begiratzekoan... glamourrik ez; gaztelaniaz esaten den bezala “aunque la mona se vista de seda, mona se queda”.

Gorria, zein kolore polita!

Zein politikak lore gorriak! Zein politikak marrubiak, gereziak! Eta niri hainbeste gustatzen zaidan sua...

Kolore beroa, alaia, bizia, erakargarria. Umeekin asko erabilia, primarioetako bat delako. Eskolako programazio gehienetan lehenengo lantzen dena, eta lehenengo ikasten dutena.

Semaforoa gorri dagoenean, hari begira egoten gara une batez, askotan burua galduta eta begirada finko, sorginduta bezala.

Gorria, Zein kolore polita! Hori izango al da, orain egun batzuk hondartzatik paseatzen nenbilela, jendearen azalak kolore hori hartzearen arrazoia? Kolore gorriaren sorginkeria eragina izango ote da?

Umeak harearekin jolastean, gazte txoak kartetan edo kontu kontari, aita-amak umetxoei begira, beste batzuk ur ertzetik paseatzen, eta beste asko eta asko eguzkia hartzen etzanda. Argi dago eguzkiak energia ematen



IXONE ZUBIETA
(Tximintx elkartearen koordinatzailea)

digula eta horrela gure bateria positiboki kargatu egiten dela, baina asko eta asko edo gorrak dira, edo ez dute entzun nahi prentsan, irratan, telebistan etengabe entzuten dena, hau da, eguzkia hartzerakoan azala babestu egin behar dela.

Azala gorritzearen arrazoia deskubritu dut orduan: Kolore gorriaren erakargarritasuna!

Gorria, zein kolore polita!

He-apaindegia
M^a Antonia Llodio
TEL: 94 452 02 70 48170 ZAMUDIO (Bizkaia)

OSKARBI
fotografoak
J. L. INIESTA ADEZUZA
TALLERIKALEA 3
48170 ZAMUDIO (BIZKAIA)
TEL: 944 520 014 / 607 400 078
E-mail: aperez@euskalnet.net

Vértigo
GONZALO PEREZ PASTOR
Diseñador - Graficista
IKUSKIZUNEN ANTOLAKUNTZA ETA AHOLKULARITZA
Poligono Tamalanaqotti P. 8 B
48170 ZAMUDIO (BIZKAIA)
E-mail: gonzalo@vervigard.es
Tel: 94 452 22 59 Fax 94 452 22 34

Ekoizle ekologikoek hitzordua izan dute Larrondon



Uztailaren 8an Larrondoko II. Azoka Ekologikoa izan zen eta bertan 20 ekoizle eta zazpi artisauk parte hartu zuten. Azokara eraman zituzten produktu ekologikoen artean hurrengoak aipa ditzakegu: pastelak, olioak, gazta, barazkiak, loreak, hestebeteak eta ardoa. Nobedadea Errioxako Tomásék ekarri zuen: vodka, ginebra eta ron ekologikoak.

Berriatuko Lourdes Malaxetxebarriaren postuan Gaizka ibili zen euskal pastelak saltzen. Gaztearen esanetan, pastel ekologikoa egiteko ez dago sekretu handirik: produktu ekologikoak erabili baino ez. "Guk egurrezko labean egiten ditugu saldu aurreko egunean, fresko eta goxo izan

daitezen". Bere ondoan Mendiko Upeltegikoek (Aibar-Nafarroa) euren ardoen -urtekoa, selekzioa eta ondua- ezaugarriak azaldu zizkioten publikoari. "Fruta-usain naturalak mantentzen dituzte eta gorputz handiagoa dute. Apur bat agresiboagoak dira, beharbada, baina oso suabeak ere badira eta zaporeak luzaroan irauten du ahoan".

Salmentak, ondo

Ekoizleek aipatu diguten moduan, salmenta onak izan dituzte aurtengo azokan. Kalitatezko artikuluak saltzen dituzte eta hori nabaritzen da.

Carmen San Martín Bakiotik etorri zen sahaskiak barazkiak eta frutaz beteta zituela. Azokan parte hartu duen bigarren aldia izan da aurtengoa eta hasieratik bazekien beste ekoizleei baino zailago izango zuela generoa saltzea. "Izan ere, Loiu eta Txorierrin ortu asko daude eta nire produktuak ez dira besteenak bezain erakargarriak. Hala ere, goiza ez da txarto joan eta ia letxuga guztiak saldu ditut".

Larrondoko Azoka Ekologikoa Loiu Udalak antolatzen du, Ekolur Nekazari Ekologikoen Elkartek lagunduta. Ekoizleek ez ezik Udaletik ere azokaren gaineko balorazio positiboa egin dute: "Giro polita izan da. Aurreko edizioan baino jende gehiago hurbildu da Larrondoraino eta dezente saldu da. Pozik gaude".

Beste alde batetik, ardo eta pintxo ekologiko dastatzea izan zen eta umeek talo eta gazta tailerretan aritzeko aukera izan zuten.

11 etxebizitza tasatu zozketatu dira Zamudion

Zamudioko Udalak 36 etxebizitza berri eraiki ditu Uribe-atzekoan. Etxebizitza horietatik 25 libreak dira eta gainontzeko hamaikak Udalaren tasazio erregimenekoak. Etxebizitza tasatuen zozketa uztailaren 20an egin zen eta bertan 97 lagunek parte hartu zuten. Etxebizitza tasatuetatik bat elbarrituei zuzenduta zegoen, baina baldintzak bete dituen inor ez da egon eta besteekin batera zozketatu dute.



Zamudioko Zikloturista, irailan

Irailaren 15ean Zamudioko Zikloturista izango da Bidekoetxe parkean. Goizeko 9:30etik 11:00etara txartelak jaso eta kamisetak emango dira, eta 11:30ean hasiera emango zaio lasterketari. Horren ostean ogitartekoak banatu eta bazkaria ere egingo dute. Arratsaldeko 16:00etatik aurrera erromeria egongo da.

Lasterketan izen-emateak 2 euro balio du 18 urtetik beharagoentzat eta 3 euro, nagusiagoentzat. Zamudion erroldatuta ez daudenek 5 euro ordaindu beharko dute. Prezioarekin txartel bi sartzan dira: bata kamisetarena eta bestea ogitarteko eta edariarena. Izen-ematea irailaren 14ra arte egin daiteke kultur teknika-riaren bulegoan.


hotela
jatetxea
aretxarte

Teknologi Parkea - Eraikuntza, 200
48170 ZAMUDIO - (BIZKAIA)
Telefonoa: 94 403 69 00
Faxa: 94 403 69 01
e-mail: hotel@aretxarte.com
e-mail: reservas@aretxarte.com
www.aretxarte.com

BITXITZETA - ERLOJU-DENDA

Ruben

Lohandakuri Laizola Plaza, 5 - Tel: 94 452 14 49
Zamudio (Bizkaia)


MAYORISTAS INFORMATICOS
EMPRESARAKO INFORMATIKA
SAREEN, MANTENIMENDUA
SERBITZU TEKNIKOA

Avda. Pinea 20 Nave 5 - 48170 - Zamudio
Tel: 944621544 - <http://www.rpmmayoristas.com>

PATXI COOP. T.I.
Concesionario Zamudio

Tel: 94 452 25 87
970 87 37 34
Ugaldesqueuren Industrialei
48170 ZAMUDIO - Bizkaia


Mahou


Carlsberg


Castellón

BAR RAFI
ESPECIALTATEA: PINTXOAK

Rafael García Tejero

C/ de Kalea, 5
48170 ZAMUDIO (Bizkaia)
I: 94 403 08 08
Móvil: 607 408 613

Ume sahararrak Loiun izan dira

Saharatik etorritako 470 umeak uda eman-go dute aurten Euskal Herrian Oporrak Bakean programaren barruan. Umeak uztailaren 10ean, 11n eta 12an ailegatu ziren Loiuko aireportura eta oporretan hartuko dituzten familiekin elkartzeko bidaia egin baino lehen, Loiuko pilotale-



kuan atsedena hartu eta indarrak berri-tzeko aukera izan zuten.

Aljeriako hegoaldeko kanpamentue-tan bizi diren errefuxiatu sahararrek oso bizi-baldintza gogorrei aurre egin behar izateaz gainera, oso temperatura altuak jasaten dituzte urte osoan zehar. Ten-peratura horiek 50 gradura heltzen dira udan. Oporrak Bakean programak hu-rrengo helburua du: uztailean eta abuz-tuan umeak Tindufeko kanpamentuetatik atera eta uda bakean pasa dezatela, euren herriak bizi duen gatazkatik urrun.

Programa duela 13 urte jarri zen mar-txan Euskal Herrian, eta bertan zazpi urtetik 12 urtera bitarteko umeek parte hartzen dute. Iñaki Calle Sopelako Nu-yum elkarteak azaldu digun moduan, haurrak gero eta baldintza hobeagotan ailegatzeko dira. "Zaintzak jasotzen dituz-te euren familiarengandik zein bertoko familiarengandik eta hori nabaritzen da. Gainera, urtero etortzen direnez familia berarekin pasatzen dute uda, eta horri esker, harremanak sendotu eta luzaro irauten dute".

Kanpamentuetan 200.000 saharar in-guru bizi dira eta horietatik %40 umeak dira.



Txorierriko harrizulatzailleekin bat

Zamudioko Txorierriko Elkartasuna Herri Kirol Taldeak Zamudioko Udaren eta Galea eta Comercial Gassó enpresen laguntza izan du ekipoa sortu zenetik hona. Hala ere, harrizulatzailleek laguntzaile berri bi izango dituzte hemendik aurrera: Derioko Udala eta Derribos Petralanda. "Hau gutxi batzuen kirola dela kontuan hartuta, ilusio handia egiten digu Udal bien eta bertoko enpresa horien laguntza izateak. Eskerrak eman nahi dizkiegu guztiei, izan ere, bazirudien hau meatze-inguruetako kirol eksklusiboa zela eta pixka-naka-pixkanaka lekua egiten ari gatazka Txorierrin ere bai".

Txorierriko taldeak hurrengo tituluak esku-ratu ditu: Euskadiko Banakako Txapelketa bat, Binakako Txapelketa bi eta txapeldunordea Banakako Txapelketa eta Binakako Txapelketa. "Kirol honetan aritzera anima-tzen den guztiek guregana jo dezakete. Neskak ere behar ditugu, emakumezkoen tal-dea edota neska-mutilen taldea sortzeko asmoa dugu-eta".

OBRAS Y REFORMAS
94 406 04 01 / 615 742 788

Gorrotxa

Berriztatze Integralak
Gremioen koordinazioa

Lehendakari 1. obraketa enparantza, 2. beheak
48170 ZAMUDIO
Tel: 94 406 04 01 - Fax: 94 406 04 06
Móvil: 616 742 788

ERREKA LONDO ETXEA

Eguneko menuak, asteburuko menu bereziak,
karta, enpresen bazkariak, jaunartzeak,
familiaren bazkariak

Artizaga, 80
/ Arriatua 48170 (Bizkaia)
Iteloa: 94 452 14 18
Fax: 94 452 20 29

GALAIISA
Estetika eta ileapaindegia
94 453 04 85 - 94 471 10 51

Etengabeko ordutegia

Sabino Arana 1-3, SONDIKA

ADARVE KAFETEGIA

Espezialitatea:
gogorak
plater koordinatuak
pintxoak

GIRO ONA

Sabino, 20000
TEL: 94 606 95 33

Miguel Angel Peres
Aislamientos Dentis

TARIFAK
PLASTIKOZKO SARAIAN
ETA APALATEGIAK
-SABAI
PREFABRICATUAK
-ISOLAMENDU TERMIKO
ETA AKUSTIKOAK

Mungialde Etorbidea, 4
48160 DERIO (BIZKAIA)
Tel.: 670 497 928
Fax: 944 541 121

ASESORÍA
Luis Fernando Aguirre, s.l.

aldekone
hortz klinika
Tel.: 94 454 15 87

Anuska Prieto Aguilar
Odontologoa

Uribarri 7, beheak
48160 DERIO (Bizkaia)

-Especialitate guztiak
zentro bakar batean
-Aurrikortasun osoa

-Especialitatea:
umeak

ARRATE
Edertasuna • Osasuna • Ongizatea

Arrege eta gogorak-Isolamendua,
Gogorak,
Muntzura eta profeta

Torres de Eibar, 2 - Ibañeta, 10000 - 94 452 14 18 - 94 452 20 29

Mateo Bidaurrazaga, I
Tfno: 94 453 33 28 - Fax: 94 471 06 28
48150 SONDIKA (Bizkaia)

San Migel (Derio)



Irailaren 21ean, barikua

19:00: Txosnen irekia
19:30: Kalejira, fanfarreak girotuta
21:00: Pregoia eta txupina
21:15: Txitxiburduntzi eta sangria
22:00: Mozorro lehiaketa
00:00: Berbena, Lisker taldearekin. Atsedendian, erakustaldi erotikoa
04:00: Berbenak jarraituko du Lisker taldearekin
05:00: Diskoteka

Irailaren 22an, zapatua

10:00: Traka
11:00: Umeentzako jolas-parkea
11:30: Lehiaketa gastronomikoak
14:00: Kazolen aurkezpena eta sariak: Paella, Tortilla eta Postreak
15:00: Herri bazkaria
16:30: Gazteentzako jolas-parkea
00:00: Berbena, Nuevo Talisman taldearekin
05:00: Diskoteka

Irailaren 23an, domeka

08:00: Sokamuturra
10:00: Traka
13:00: Bilbainadak
16:30: Herri kirolak

18:00: Dantzak

20:00: Jubilatuentzako kopaua eta txitxarillo

Irailaren 28an, barikua

19:30: Txorizo sagardoarekin
21:00: Karaoke
00:00: Berbena. Atsedendian, erakustaldi erotikoa
04:00: Diskoteka

Irailaren 29an, zapatua

10:30: San Migel 'Julio Garitano' IV. Futbito Txapelketa
14:00: Indaba jana
16:30: Zezenketa-ikuskizuna
00:00: Kontzertua: Skalarriak
05:00: Diskoteka

Irailaren 30ean, domeka

10:30: San Migel 'Julio Garitano' IV. Futbito Txapelketa
12:30: Pintxoak, plazan
17:00: Kale antzerkia
20:00: Txokolatada
20:15: Konpartsen sari banaketa
20:30: Diskoteka
23:00: Txupina eta jaien amaiera

Jaietan

Larrabetzuko eta Lezamako Andramariak Txorierriko jairik nagusienak izango dira datozen hilabeteetan. Baina bertoko hainbat auzo ere jaietan egongo dira abuztuan eta irailean zehar. Hurrengo orrialdeotan jai-egitarau batzuk dituzue; hala ere, aikor.com webgunean (agenda) gehiago eskegi ditugu.



Larrondo (Loiu)

Abuztuaren 31an, barikua

20:00: Txupinazoa, ikurrina jasotzea eta kalejira.
20:30: Emakumeen pala partida
22:00: Tortilla Lehiaketaren aurkezpena
23:30: Berbena, Flaitzama taldearen eskutik
Gauean sardina jana egongo da
Irailaren 1ean, zapatua
13:00: Kalejira, txistulariek girotuta
14:30: Herri bazkaria. Ostean, Mus, Tute eta Briska Txapelketak

Arratsaldean pasa den jaietako argazkiak aurkeztuko dira

16:00: Ludoteka eta makillaje tailerra txikientzat
19:00: Txikientzako berbena, Poco-Pico taldearekin
19:00: Pilota jaialdia. Pilota partidak frontoian
21:00: Mozorro Festa txikientzat
23:00: Mozorro Festa nagusientzat
23:30: Erromeria, Luhartz taldearekin
Gauean saiheski jana egongo da

Jaietako **SAN ISIDRO**
EUSKO ORELTAN ESPECIALIZATUA ETA ETORKI GIBRIKENTZA APARTA
ESKONTZAK, BATAIOAK, JAUNARTZEAK
*Karia zerbitzuak - Jantzi zerbitzuak - Jantzi pribatuak
Jantzi zerbitzuak - Jantzi pribatuak - Jantzi pribatuak*
Telefono: 94 454 07 58
Fax: 94 454 14 18
Hargapenak: Derio, s/n 25
48160 DERIO

RESTAURANTE
JAIETXE
AYRREGOITI
Txiki, Fax: 94 454 24 40 / LAUROTA ETORRIDA, 37 / 48160 LOIU-Bakon
e-mail: ayrregoititxiki@terra.es // www.restauranteayrregoititxiki.com

Odontologia orokorra
-Ortodontologia (umeak eta helduek)
-Periodontia
-Harkunde fikurazko abuztuak den plasmu
-Harkunde estetikoa (auriketa, piercing...)
-Harkunde partziala eta totala
Jesus Enrique Lopez Hidalgo
Odontologo
Txiki, Fax: 94 454 01 01 - e-mail: clase@ayrregoititxiki.com - 48160 DERIO (Derio)

MULTIPRECIO RAKEL
Garaia, Urteta - 48160 DERIO
Sareko telefonoa: 935 70 26 35

Bar TRIPPY
ZURE GIRONIK ONENA
Gura baduzu ondo pasatu, musika ona entzun eta futbollean jokatu, etorri zaitza Trippya, Derio.
Behetxe Kalea, Bajo
DERIO

UMEENTZAKO MODA
Tximeleta
Gernikako Arbola, 8
Telefonoa: 94 454 14 15
Fax: 94 454 38 26
48160 DERIO
Derio

gaude



San Antolin (Zamudio)

Irailaren 1ean, zapatua

11:00: Txupinazoa
12:00: Txakolin dastazea
Bertoko trikitixa taldearen emanaldia
13:00: Idi-proben zozketa
Ormaetxe anaiak (Zumeltzu) – Zamudio
Sabino Bizkarregi – Erandio
Jose Bizkarregi – Erandio
Jose Luis Lopategi – Sondika
Martin Aurrekoetxea (Lañes) – Loiu
Jose Elortegi (Txapas) – Barrika
20:00: Idi-probak
22:00: Dantzaldia, Txinparta taldearekin.
Txokolatada

Irailaren 2an, domeka. Sandoni Eguna

11:00: Sukalki Txapelketa
11:30: Fedearen ospakizuna.
Omenaldia adinekoei
13:00: Dantzen agerraldia, Hiru-bat taldearen eskutik
14:00: Sukalkiaren aurkezpena
16:00: Mus Txapelketa
18:00: Haur-jaialdia, Gorritiren eskutik (poniak, zekorrak...)
22:00: Dantzaldia, Txinparta taldearekin.
Txokolatada
Irailaren 3an, astelehena. Sandonitxu Eguna
11:30: Meza, ermitan
20:00: Idi-probak

Santa Kurtze, Larrabarrena parkean (Sondika)

Irailaren 14an, barikua

11:00: Kalejira, trikitixak girotuta
12:00: Meza, Kurtzeko basilizan eta ohorezko aurrekua
18:00: Udako oporretan ikuskizuna, Kuko Truko eta Bolenwaider pailazoen eskutik
21:00: Txorizo jana
21:30: Txuma Olagüe Abesbatzaren ekitaldia
24:00: Dantzaldia, AMAIUR taldearekin

Irailaren 15ean, zapatua

10:00: Kalejira, Ipar Elaiak Txistulari Elkartearekin
10:30-14:30: Haur eta gazteentzako jolasparkea eta II. Haurren Marrazketa eta Pintura Lehiaketa
17:00: Futbol partidua (Gorka Fernándezi omenaldia)
19:30: *La cabra* antzezlan, El Espejo Negro

taldearen eskutik
23:00: Diskoteka
Kontzertua: Betagarri
Diskoteka

Irailaren 16an, domeka

10:00: Kalejira, Ipar Elaiak Txistulari Elkartearekin
10:30-14:30: Haur eta gazteentzako jolasparkea
18:00: dantzen agerraldia



Betagarri taldea

BAR BIDE-BI
Zamudio
Aukeratu zurea!
Goizeko 5etatik aurrera zabalik
Gosari bereziak
Telefonoa: 94 452 20 48
Leizeola Lehendakaria plaza, 3

CARNICERIAS TXORIERRI
Iker Añelaketa Saso
R-M
PINTURA
TXAPA ETA LABE PINTURA
Torrelozagoiti Pol. Vial sar C-10, Nave B5 1-48100 Zamudio BIZKAIA
T/Fax: 94 452 29 03

CAFE-BAR BIDE-GORRI
Era askotako pintorak - Plater kombinatuak
800etatik aurrera
Txinbo Kalea, 9
48170 ZAMUDIO (Bizkaia)
Tel. 94 452 26 25

BODEGAS URSULAS DE ECARTE
BODEGAS
CRUCAMPA
CIBRERO
BODEGAS ELKORRO
AGUA TRAZADA
1.º y 2.º PLAZA
CALLE DE LA GORRA
BODEGAS URSULAS
Bodegas Ortu Ondo, S.A.
Urdulazgoiti Poligonua III Ind., P-4
Tlfnoa. 94 452 15 90 Fax. 94 452 36 90
48170 ZAMUDIO
e-mail: urdulazgoiti@ortuondo.com

LIBRERIA SONDIKA LIBURUDENDA
ARTE EDERRAK ESKULANAK, E.A.
JESUS MANUEL LANDA ANTOLIN
Fotokopiak, knademaketa, plastifikatuak,
prentsa, aldizkariak, liburuak,
papergintza eta eskulanak
Mikel Zarate, 2 Tel. / Faxa: 94 453 16 77
48100 SONDIKA (Bizkaia)



gazte Egune 2007
larrabetzu / hori bai gaztetxea

uztailak 28

- 12:00h Murala margotzen
- 14:30h Parirlada + Bazkari Begota
- 16:00h Musika kalean: Las Furias [Larrabetzu] + Okupando rom[Erre]me
- 18:00h Gaztetxe eta Gazte Asanbladen arteko Olinpiadak
- 22:00h Kalejira + ekitaldia
- 24:00h Kontzertuak / DJ-ak gaztetxean

**skalariak
atom rhumba
skasak**

uztailak 31, San Ignazio

- 11:00h Triakularrak eta trikipotea
- 14:30h Bazkari Herrikola
- 22:00h Erromeria plaza

Gaztetxeen eta gazte asanbladen lana kalera aterako du Gazte Eguna

Uztailaren 28an, zapatuz, Larrabetzuko Gazte Eguna izango da Hori Bairen eskutik. Egun horretan ekitaldi sorta zabala egongo da urian: murala margotzea, bazkaria, olinpiadak eta kontzertuak, besteak beste. Horrezaz gainera, trikipotea, erromeria eta bazkaria egingo dituzte uztailaren 31an, San Ignazio Egunean.

Gazte Egunaren aurtengo edizioan Hori Baikoek Euskal Herriko gaztetxe eta gazte asanbladek auzo zein herrietan egiten duten lana kalera atera nahi dute. "Izan ere, egunerokotasunean gure mugimenduaren kontrako errepresioa areagotuz doa. Modu inkoherentean ezartzen dizkiguten isun,

utzarazte eta oztopoak horren adibideak dira, baita gaztetxeen eta gazte asanbladen alde lan egiten duten gazteen aurkako espetxe zigorrak ere".

Gazteek azaldu duten moduan, tinko eta gogor eusten diote egoera horri, eta, horregatik, herriarekin batera hazten jarraitzen dute, okupazioa, asanblada eta autogestioaren bidez euren ideiak eta gogoak garatuz. "Beraz, aurtengo Gazte Egunean euskal gazteria antolatuta dagoela erakutsi nahi dugu. Egun hori inoiz baino biziago ospatzeko premia dugu eta deialdi zabala luzatzen diegu Euskal Herriko gazteei, ekitaldi hauekin guztietan denok parte har dezagun".

Helduentzako antzerkia euskaraz, Mankomunitatearen eskutik

Mankomunitateak helduei zuzendutako euskarazko antzeztan bat ekarriko du urtean behin Txorierrira. Ideia udaletako kultur suspertzaileek izan dute eta Mankomunitateak bere gain hartu du.

Ekimen horrek euskara eta antzerkia uztartzeaz gainera, txorierritarrek Euskal Herrian sortzen diren euskal antzeztan ezagunez gozatzea du helburu.

Oraingo honetan *Artea* antzeztana ikusteko aukera egongo da. Hori irailaren 22an, 20:00etan, izango da Sondikako Kultur Etxean. Ramón Agirre, Joseba Apaolaza eta Asier Hormaza dira tragikomedia honen aktoreak.

Sarrerek 5 euro balio dute eta irailaren 3tik 17ra arte egongo dira salgai Larrabetzu, Lezama eta Sondikako udal liburutegietan, Txorierriko Mankomunitatean eta Zamudio eta Loeuko udaletxeetan. Era berean, sarrerak BBKren orotarako kutxazainetan edo www.bbk.es webgunean lor daitezke.

Derio-Zamudio Lasterketa

Irailaren 16an, domekaz, XV. Derio-Zamudio lasterketa egingo dute. Lasterketa goizeko 11:00etan aterako da Derioko kiroldegitik eta eguerdiko 13:30ak aldera amaituko da Gazi-tuaga futbol zelaian.

Parthartzaileek ibilbide bi izango dituzte aukeran: A lasterketa (4000 m) eta B lasterketa (8000 m). Izen-ematea lasterketa hasi baino ordu erdi lehenago arte egin daiteke. Parthartzaile guztiek sari bana jasoko dute helmugan. Horrezaz gainera, mikrobis bat edukiko dute arropa eramateko eta Deriora bueltatzeko. Zamudioko kiroldegiko dutxak erabiltzeko aukera ere izango dute.

Lasterketa Zamudio eta Derioko Udalek antolatzen dute eta egun horretan batzen den diru guztia Mugarik Gabe gobernu kanpoko erakundeari emango diote.



Salon de Belleza
Auxi

Pequeña Estreñe Begotia
Manuelita Plancha, 20
Teléfono: 94 494 53 44
DERIO

Oficina: 1. planta
(Gaztekoan bankuaren ondoan)
Teléfono: 94 421 03 04
SUNDIAL



pro audio
ESPECIALISTAS EN SONIDO

Isorierri azarbleda 15
9850' sonidita
balkia efno: 991 523 375

www.pronaudio.com
jaskilloragocanofia.com

Panel CJK 3100

229 €



Sabin Askolizaga
Aspezu Argutia
Alliaz

609 47 57 46

Tel: 94 4531807
Fax: 94 4531627

Mirre, 6. planta
48150 Sordika-Barkia

Nahi duzun lekura iristeko arazoak dituzu?



Etxebizitzetarako igogailuak

Eskailera igogailuak

Plataformak

Arazoei agur...

IGOGAILUAK
ARLAN
ASCENSORES



902 54 08 54 www.arlan.biz

Kalitatea, espazioa, lasaitasuna... Aurki ezazu behar duzun guztia



ETXEBIZITZA-GUNEA
LANDABARRI


Bilbo Handiko
habitat berria



Zure etxean gustura egotea nahi dugu **Sukian**. Horregatik, Landabarri Etxebizitza-gunea eraiki dugu, Bilbo Handiko habitat berria. Beti zure ametsa izan den lekua, etxebizitza pertsonalizatuak eta kalitatezkoak dituen. Goza ezazu kirol eta gizarte ekipamendu horietan eta berdeguneetan Bilbotik, aireportutik eta Teknologia Elkartegitik gertu dagoen inguruan. Zatoz Sukiara, zure etxean zaude.

 **sukia**
Zure etxean zaude.

www.sukia.com
94 645 90 15



Vietnamgo leize ilunetan, Txileko Patagonian eta beste hainbat lekutan izan da. Unai Kastresana Ursua da, derioztar abenturazale sutua. Hogeita bederatzi urteko gazteak bost kontinentetatik bidaiatu du abentura bila. Beste herrialde eta kultura batzuk ezagutu ditu eta egon den toki guztietan kirol batzuk egin ditu, hala nola eskalada eta trekkinga. Baso-lanak eta natura-ingurunearen zaintza ikasketak egin zituen eta mantentzaile elektrikoa ere bada, baina sorosle dihardu lanean. Urrian, Bolivia eta Txilera joango da abentura berri bila. Abentura-gose horri buruzko solasaldia izan dugu berarekin.

Testua: Eder Merino

Unai Kastresana, abenturazalea

“Txile paisa ederra da, k

Nola edo nondik datorkizu abenturarako irrika hori?

Egia esateko, neuk aukeratutako bidea izan da; nire familian ez da inor halako abentura-gosea duenik.

Noiztik bidaiatzen duzu?

Beti izan naiz oso mendizalea. Hamazazpi urterekin hasi nintzen arroilak jaisten, eta hogeirekin eskalatzen.

Eta nora joan zinen lehenengo aldiz?

Marokora, 19 urte nituenean. Tubkal mendia igotzera joan nintzen. Ondoren hamai-ka bidaia egin ditut. Vietnamera, esaterako, 22 urterekin joan nintzen.

Noiz egiten dituzu bidaiak?

Hego Amerikara bidaiatzeko urtarorik onena udazkena izaten da, urritik abentura, orduan izaten baita klimarik egokiena. Leku batera bidaiatu aurretik, baldintza klimatikoak izaten ditut kontuan. Adibidez, Marokora otsailean joan nintzen eta egundoko hotza eta elurtea izan zen.

Zenbat denbora ematen duzu kanpoan?

Hilabete inguru, normalean. Irailean hila-beterako joango naiz Alpeetara, eta, horren ostean, bi hilabete eta erdi emango ditut Bolivian eta Txilen.

Zein lekutan egon zara?

Mendizaletasunak bultzaturik, Txile, Viet-



AIKOR!lagun

Egin zaitez euskararen lagun!

Izen-abizenak _____

Helbidea _____

Telefona _____ e-posta _____

Bankuko 20 zenbakiak _____

Diru kopurua: 30 euro _____ Beste kopuru bat _____

Orri hau helbide honetara bidali:
AIKOR! Aresti kalea 2, B – 48 170, Zamudio
edo bestela sartu www.aikor.com webgunean

Zure laguntzagaz aldizkaria hobetuko dugu!

ia ikaragarritz betetako herrialde kirola praktikatzeko leku egokia”

nam, Maroko, Argentina eta Uruguaira joan naiz; eskalatzen, ordea, Sardiniatik ibili naiz. Behin Frantziara joaten saiatu ginen eskalatza, baina eguraldi txarraren ondorioz ezin izan genuen eskalatu.

**Zein izan da ikusi duzun lekurik erakar-
garriena?**

Txile. Kontraste bortitzez osaturiko herrialdea da. Alde batetik, Patagonia dago eta, bestetik, Atacamako basamortua. Paisaia desberdinez betetako herrialdea da.

Une larririk bizi izan duzu inoiz?

Behin Frantziako Pirinioetara joan ginen eskalatza. Hartan ari ginela, lainoa gainera etorri eta galdu ginen. Ez genekien non zen autoa eta ezin genuen atzera egin. Elurretan bibak bat egin behar izan genuen gaua egiteko. Ez geneukan materialik eta 0 azpitik 15 gradutan ginen. Oso txarto pasatu genuen, baina handik hamazortzi ordu-
ra autora heltzea lortu genuen.

**Egon zaren lekuetatik zein bisitatuko
zenuke berriro?**

Bada atsotitz bat zera dioena: “Zoriontsu izan zaren lekua ez duzu berriro bisitatu behar”; hala ere, egin ditudan bidaia guztiak egingo nituzke berriro.

**Zein bidaia gomendatuko zenioke eska-
latzea edo trekkinga gogokoa duen bati?**

Txile leku egokia da eskalatze, trekkinga egiteko edo mendiak igotzeko. Vietnam ere toki ezin hobea da eskalatze.

Nora gustatuko litzaizuke bidaiatzea?

Zeelanda Berria bisitatzeko irrikan nago; han toki ederrak daude eta Zeelanda Berriko Alpeak ikusgarriak dira. Yosemitea (AEB) bidaiatzea ere ondo legoke, eskalatze horria handiak baitaude.

Zelan antolatzen dituzu bidaiak?

Leku bat edo bestea aukeratu baino lehen, ahalik eta informaziorik gehien biltzen dut. Behin herrialdea aukeratuz gero, egiten dudana bakarrik hegazkinek txartela erostea da. Hau da, herrialdera heltzean,

“bizimodua” neure kabuz ateratzen dut. Aurretik ez dut ezer erreserbatzen.

Nolako bidaiari mota zara?

Motxileroa naiz. Inoiz ez naiz bidaia antolatuetan ibili eta ez dut uste inoiz egingo dudarik.

**Bolivia eta Txilera joango duzu laster,
nolakoa izango da bidaia hori?**



Irailean Frantziako Alpeetara joango naiz entrenatzera. Han hilabete emango dut eta, ondoren, Bolivia eta Txilera abiatuko naiz. Bolivian hilabetez egongo naiz eta hango Amazonia-eta bisitatzeko aprobetxatuko dut. Handik Txilera joango naiz. Han granitozko 600 eta 800 metro bitarteko hormak daude; haiek egokiak dira eskaladarako eta bide berriak irekitzeko. Txilen hilabete eta erdiz egongo naiz.

**Azkenik, antolatu bidaia bat AIKOR! aldiz-
kariaren irakurle guztientzat.**


Vietnam leku ederra izango litzateke. Lehenengo eta behin, Ho-Chi-Minh hiriburu eta Cuchiko tunelak bisitatuko genituzke eta, ondoren, Mekong-eko delta famatutik abiatuko ginatke herrialdearen hegoaldera. Erdialderantz jo eta “Lurrindun ibaia”tik iparraldera helduz Halong badiarekin egingo genuke topo. Azkenik, trekking zaleek asko gozatuko lukete Sapa aldean eta talde etniko batzuk ezagutzeko aukera ere izango genuke.

KIMA
Landarak
LANDARE APAINGARRIA
Gomilza 59 • Tel.: 94 455 51 00 • Fax: 94 455 61 77
(48946 LEZAMA (LEZAMA))

S.A.T. LEGY
LEZAMA
Gomilza Auzoa, 56
48196 LEZAMA - Bizkaia
Tel.: 94 455 61 98
Fax: 94 455 64 17

LEJARRENE JATETXEA
Gomilza auzoa, 102 • LEZAMA • T: 94 455 65 46
A three-story building with a blue facade and a red roof, surrounded by greenery.

Derioko lehen kazetari euskaldunak



Derio'ko bat

Euzkadi egunkarian kronikak eta albisteez gain, olerkitxoak ere argitaratzen ziren. 1931ko ekainaren 21ean *Gora Euzkadi* olerkia argitaratu zen. Derio'ko batek sinatu zuen olerkitxoa. Hona olerkia:

Zeruan dagon jaunak ondoan
gure irakaslaria,
begira dago zelan datorren
beran nekean saria.
Ez da zuretzat, erbestetarra,
gure soloko garia
zuk an daukazu zeure lurretan
ganera zeure aberria.
Gu'k euskaldunok jarriko doguz
Euzkadirentzat legeak
erbestetarrak egiñak baño
guretzat askoz hobeak.
Begoña'ko Ama, geuri lagundu
arerioai itzita
egunen baten ikusi daigun
geure Euzkadi askatuta.
Alkartu gaiten euskotar danok
indar ein daigun batera
ekar daiguzan Madril aldetik
geure lagiak atzera.

1931 eta 1933 urteen bitartean Euzkadi egunkarian hiru lagunak euskaraz idatzi zituzten Deriori buruzko berriak. Ezizenak baino ez dakizkigu: Aketze, Urretxindorra eta Elexalde. Hona hemen euren beharraren gomuta.

Testua: Bestorrene

Derioko lehen kazetari euskaldunak internet bidez topatu ditugu. Susa argitaletxearen armiarma.com webgunean aurkitu ditugu, sarean paratutako Euskal prentsaren lanak datu basean. Bertan Derio izena sakatuta Euzkadi egunkarian argitaratutako lau artikulu agertu zaizkigu, baita derioztar batek idatzitako olerki bat ere.

Euzkadi egunkaria jeltzaleen egunkaria izan zen. Egunkari horretan denetariko gaiak eta generoak agertzen ziren. Gehien bat erdaraz idatzita egon arren, euskarazko zati batzuk izan bazituen. Horien artean, herrietako gaiak. Herrietako kronika horiek egiteko berriemaile sarea eratu zuen egunkariak.

Deriori buruzko kronikak hiru ezizen ezberdinekin datoz: Aketze, Urretxindorra eta Elexalde. Artikulu guztiak bizkaieraz daude idatziak, Sabino Aranak zabaldutako garbizaletasunaren harira. Azter dezagun, ginetik bada ere, bakoitzak idatzitako artikuluen mamia.

Aketze

Deriori buruzko lehen kronika 1931ko apirilaren 12an argitaratu zen. Hurrengo hilean ere (maiatzaren 17an, hain zuzen ere) Aketzek sinatuta agertu ziren Deriori buruzko kronikak.

Lehenengoan bi kronika agertzen dira. Lehena hauteskunde propaganda da. Udal hauteskundeak direla eta, Derio eta Zamudioko gazteei (urte hartan Deriok eta Zamudiok udal bera zuten) deia egiten die Gangoiti monarkikoa ("axur baltza" deitzen dio) ez botatzeko eta Zorion Aslari botoa emateko. Hurrengo

kronikan Ander Lopategi eta Anaste Goiri senar-emazteak agertzen dira. Izan ere, bi hauen seme zena, Sabin, ume txikia zela hil zen. Animoak ematen dizkie bie.

Bigarrenean Derioko gazteak animatzen ditu EAJk Zornotzan antolatutako Euskal jaietara joateko. Autobusa egongo da eta 9 "errial" balio du joan eta etorriak. Artikulutxoa amaitzen du Gora Derijotarrak! esanda.

Urretxindorra

Ia bi urte pasatu behar dira Deriori buruzko kronikak berriro topa-



DERIO

AUTESKUNDIAK.
 Erri onetako euzko gastodijari diotzat
 iparringi onetarik, gomuta dajian lgan-
 dean auteskundiak dirala. Eupada bat egi-
 ten deusuet, zeuen bijotzak egiu cinetan
 goatu postu, eta ategitatu dairuen godari
 egiu soialdu antsera. jarraitu eta lan egiu
 Euzkadi-errentat. Gangoi ardua saltzallera-
 n zuen bekokiya garbi agertu, eta onen
 onderreguari hardit, eusten yuh Aberrija
 maite dogula ill artean. Onak enfira baka-
 rrik Judas'en analak bakarrik, muen egiu,
 geure aberrija saltzeko, ustelazuna atripe
 usaila, eia gaitera maite dabe bakalduna
 (erregoa) eta guk, Euzkadi. Jani Gokoa
 eta Lagi-Zarra. iNortan dira Gangoi
 eta lagunak? auzo balzak bakarrik. iNer-

DERIO

BITXABAL BARRIJA. — Poriik dagoz
 emekunak buter-bera Geldotz-aldetarak
 do be bitxabal barrija egiu dabelako.
 Bitxabal an eririk Geldotz-erako egiu
 dabe. Anjo baserrik gusitjak dantza ta
 alai illi ziran igandian, benetako penez.
AKPIDIA. — Espetxian dago aspaldien
 Zaratein Tiburti ta emen apidia zaba-
 la dogu zoratetiko langile gusitjak ba-
 kotzak al dabela emen dajian. Beraz ba-
 dokiku euzko-langile gusitjak zerba emen
 biat dogula arek espetxenik urten aite.
 Dore ama ta aiebaa zelan dajian ba-
 dokikude ta lagundu biat yake.
ORILAKO LORAK. — Amaitatu no-
 tis edo gema juten zan lora elefak gi-
 lera. Odo tuta obeto abestuten ziran
 euzko-abestitjak.
GEURE ARTIAN. — Amoretin egiu
 batzuk igarota etofi da guregana etika-
 donko trameskiondaria dan Bengoetxea
 tal laski. Zorijonak.
ELEXALDE.
 Lasa.—Ja "Elexalde" salf-sadi idarten
 deuen. Ez nekatu. Askori jasoten jakona,
 egiu nolaz auzo ill.—L.

tack dira Asa'tar Zerku eta lagunak?
 guzko seme siltunak eta lejalak, osari
 emen biat dautsegu zuzterkija, geure udala
 argi eta garbi illi dantean, euzon maite-
 tasuna ugarija dala ko aberrija-errentat.
 Aurtera ba Derio eta Zamudio'ko gusitjak
 biddur bari, emen dakoguz, gaste bi, biat
 ugaldetaz Lon eta bigarrena Zasu euz-
 kel idesia, onai biari biat deusuego igan-
 dian, euzko agiortea dajera egiu. Gure
 lana eia geuretra
 tras eta Jani Gok
 Euzkadi-errentat.
 Euzkadi-errentat.

DERIO

Zornotzan dira euzko jaiak,
 erri onetarik aialat nerbi
 itari emeteko euzko biotia da-
 netan. Iparrangt onen biarte
 aian izan de arratsalako on-
 urango d'ela tarrantak lau
 on dabenak izatu ez deko bea-
 ri emen Euzko Batzokijian.
 aia gurean agertzen ba dira bi-
 ana ipoiu da, gusitja juan
 leratzi etrial.
 berrijetan, eta Euzkadi ren-
 tetan bijotzak, eta gurean izan-
 tarantz, Gora Derioetarak.
AKETZE.

DERIO

IAYOTZA. — Igasi dan igandian ugu-
 tran eben egi onetan Agurtzane euzko-
 zinetan, geure lagun on eta abertale m-
 teak diran Aberri'ar Markelin eta Ber-
 zundat Berzundat'ar zabazaba. Lo-
 rikoa E.A.A.L'ko leialakija da bere
 auzo. Zorijonak guraso ziotra onai ta
 a'antaz jahi lan egiu geure aberri onen
 alda.
DONOSTIARA. — Derio'rik bere jente
 aian juan zan Donostia'ra argo jai alef-
 lorak Guri ta egun on bat igaroteko au-
 roz. Poriik atzera etofi ziran milaka ta
 milaka hata analako aietatjak.
ERETXINDORA.

Elexalde

Handik pare bat hilera, 1933ko ekainaren 15ean Derio buruzko kronikak berriro agertu ziren Euzkadi egunkarian. Kasu honetan, sinatzaileak Elexalde izena jarri zuen.

Lau kronikatxo dakartza egile honek. Lehenak Bitxabal barrija izena du. Bitxabal errepidea da eta Geldora doanaz ari da (berak Geldotz deitzen dio auzo horri). Bigarrenean diru batze bati buruz ari da. Kartzelan da Tiburtzi Zarate derioztarra "Euzkadiren alde egitearren" eta horri sostengua emateko eskatzen die derioztarrei. Hirugarrena, orrilako (maiatzako) loreei buruzkoa da. Laugarrena, azkenik, Derioko apaizari buruzkoa da. Apaiza, Iñaki Bengoetxea izenekoa, Amoretan izan zen eta atzera ere herria etorri zela aipatzen zigun Elexalde.

Iñaki **Jabi**
 94 455 65 08 94 452 14 31

Magalarte txakolina

ARETXABALETAZ IDOIA ETA BULGARAZA

75 cl. 10,75 % vol.

Bizkako Txakolina Denominación de Origen

Libre - 1-85

LAINOMENDI TALDEA DERIO

- Irailaren 14an, belko ordutegian, hasiko gara Txistu Klaseek eta Danikaz saloak (4 urteko aurrera)
- IZENA EMATEKO:** Belatik aurrera Derioko institutuan

TALDEKIDEEI OHARRA: Irailaren 3an onsaloo odutika dogu eta irailaren 7an dantza egutegia lortzen

TABERNA-ERRETEGIA AEROBIDE

IRAILEAN inaugurazioa

Musika, **DANTZA** eta dibertsioz betetako txoko atsegina

JABE BERRIEK hartu dute taberna

ORDUTEGIA:
 Asteleheneretik-ostegunera: 00:00 arte
 Ostiralean eta larunbatean: 03:00 arte

ESPEZIALITATEA HARAGI-PARRILLADA

Brazilgo Capirinha goxoa

Txorierriko etorbidea, 49 ▲ 48150 Sondika
 Erreserbatzeko telefonoa: 94 453 88 32
 Erreserbak aldeaz surretik egin

GOIZOTZ
Janari izoztuen denda

C/ Mikel Zarate, 5
Telefonoa: 94 453 80 00
www.goizotz.com

48150 SONDIKA
Bizkaia



EGUNERO ZABALIK

Ordutegia:
13:00etatik 15:30ra eta
20:00etatik 23:30ra arte
Elektro-erretxaketa
zerbitzua 1 €

Besturone 5, Beha 48160 DERIO
T: 94 454 55 55

-Fiskala

-Laborala

-Kontablea

Aholkularitza



Aretxalde, 68
Telefonoa: 94 455 65 38
48196 LEZAMA (Bizkaia)

Done Jakue: biz

Antzina, jainkozaletasunak, promesek edo penitentieiek bultzaturik egiten zuten erromesek Done Jakue Bidea. Gaur egun baliteke Santiagora joateko arrazoiak bestelakoak izatea, baina oraindik eutsi zaio sinbolismoari. Txorierri bide magiko horren zatia da eta Lezaman erromesentzako aterpea dago. **AIKOR!** aldizkariak bieira lepoan jantzi eta ibilbideari ekin dio.

Testua eta argazkiak: Gaizka Eguskiza

Txorierri bidearen iparraldeko adarrean dago. Adar hori Konpostelarako erromes bide zaharrenetarikoa da. Guztira, 765 kilometroko luzera du eta, Hendaiatik hasita, iberiar penintsularen iparralde guztia zeharkatzen du itsasertzetik. Lehenengo urteetan hegoaldeko bidearen alternatiba bihurtu zen, Nafarroaren zati bat musulmanen menpe zegoen-eta. Done Jakue Bideak garrantzi handia izan zuen; esate baterako, bide horretan kokatua egoteak ekarri zuen Larrabetzu sortu izana. Hain zuzen ere, herri horrexetatik sartzen da Done Jakue Bidea Txorierriin. Morgatik Goikoelexalde auzora heltzen dira erromesak, eta handik Larrabetzura doaz. Hurrengo geldialdia Lezaman egiten dute, eta geroago Zamudion. Azken herri horretan, Pinoa industrialdeko bidea hartu eta Iturritxualde mendira igoko gara. Mendi tontorreko behatokiak Derio eta Zamudio ikusteko aukera zoragarria ematen digu. Azkenik, bideak Bilborantz jarraituko du.

Iparraldeko bidea ez ezik beste bide

batzuk ere badira Santiagora iristeko. Zenbat kilometro egin nahi diren edo nondik irten nahi den, bada hau edo beste aukeraturiko da. Entzutetsuena Frantses Bidea da; Berau Orreagatik Nafarroa Garaian sartu, Errioxa eta Gaztelatik jarraitu eta Santiagora heltzen da. Historiaz zein monumentuz josita dago eta "horregatik jende gehiegi biltzen du", dio Carlos Eraso Bizkaiko aterpeen koordinatzaileak. "Kostaldeko bidetik ez da hainbeste jende joaten, baina azken bolada honetan gero eta erromes gehiagok aukeratzen du. Beste alde batetik, fisikoki gogorragoa izan arren, natura aldetik askoz politagoa da", azaldu du.

"Drogarik gogorrena, Done Jakue Bidea"

Igarobidea izateaz gain, Txorierri atsedean hartzeko leku egokia da: azken lauzpabost urteotan Lezaman ezarri da erromesentzako aterpea. Jesús Gordoa da haren arduraduna. Lezamarra da, baina orain dela urte asko Alacantera joan zen bizitzera. Lezamako aterpea

35 urte bete arte itxarongo duzu independente izateko?

Dunjabekasuna lotu nahi duzu eta azkar bidean?
Pozik eta eragitu gure biziaren irizpide praktikoak
praktikoak, biziaren irizpideak eta eragitu
Lan munduan zuretzat aukeratu behar duzu



**PROFESIONALIZAZIORANTZ
BIDE AZKARRA**

POLITIKORUA IKERTZEA

TXORIERRI

Centro de Educación Secundaria y Formación Profesional
Londarri Herriko Ikastetxea eta Kaperen Ikastetxea (Londarri Herriko Ikastetxea)
Udako Ikastetxea, 1 | Tel.: 94 453 40 80 | Email: info@txorierri.net
48110 - LEZAMA | Fax: 94 453 40 81 | www.txorierri.net

HEZIKETA ZIKLOAK

KIMIKA

Ingurumen-kimika *Gai malla (1.400 ordu)*

FABRIKAZIO MEKANIKOA

- Mekaniizazioa *Ertz malla (2.000 ordu)*
- Proiektu mekanikoen garapena *Gai malla (2.000 ordu)*
- Proiektu mekanikoen garapena *Gai malla (2.000 ordu)*

ELEKTRIZITATEA ETA ELEKTRONIKA

- Erregulazio eta kontrol automatikoen sistemak *Gai malla (2.000 ordu)*
- Telekomunikazio eta informetika sistemak *Gai malla (2.000 ordu)*

MERKATARITZA ETA MARKETINA

- Merkataritza eta marketin planak *Gai malla (1.400 ordu)*

BATXILLERGO TEKNIKO ETA ZIENTIFIKOA



zi bidea

udan eta arrastiz baino ez da egoten irekita –uztailaren 1etik irailaren 30era arte, 16:00etatik aurrera–. Epe eta ordutegia hain mugatua izan arren, 1.000 erromes inguru hartu zituen iaz, eta aurten gehiago espero dute. Gainera, txikia da: badira 10 lagunentzako ohexkak, eta besteek koltxonetetan egin behar izaten dute lo. Halere, “handiagoa izango balitz, gehiago etorriko lirateke”, dio Gordoak. Aterpeak kanpotik itxura onik eduki ez arren, garbitasuna, ur beroa eta aire girotua eskaintzen dira barruan. Dena dela, aterpe hori behin-behinekoa da: Lezamako Udalak eraikin polibalente bat eraikiko bi urte barru, eta aterpea hantxe kokatuko du.

Gordoak etxola horren sinpletasuna defendatu du. “Erromesak nekatuta eta izerditan etortzen dira eta gauza bat baino ez dute nahi izaten, ohea eta irribarrea. Hemen horixe ematen diegu, ongi etorri beroa. Eta gero, gauzez, hitz egiten dugu eta trago bat hartzera joaten gara denok

*Txorierrri Santiago
Konpostelakora doan
Iparraldeko Bidean dago*

*Lezamako aterpea udan
eta arrastiz baino ez dago
irekita: uztailetik irailera
arte, 16:00etatik aurrera*



Gehienek oinez, baina batzuek bizikletaz egin nahiago dute Bidea.



Jesús Gordoak ziurtagiriak sinatu eta ongietorria ematen die erromesei Lezamako aterpean


Guztion ametselako oheak

ARTEAGA koltxoi-denda

Derioko Seminario • 94 454 51 47 • DERIO

www.hastens.com

DONE JAKUE BIDEA TXORIERRIN



elkarrekin. Horrela, haiantzat aterpeak Dostia Maria Kristina hotela baino hobekak dira". Beraz, "erromesak Lezamatik pozik" irteten direla baieztatu digu Gordoak.

Aterpezain horrek lau aldiz egin du Bidea, eta, horri buruz hitz egiten duenean, begietan distira berezi bat pizten zaio. "Bidea egiteak bizitza aldatzen dizu, drogari gogorrena da. Bizitzan zer den garrantzitsua irakasten dizu bideak". Bere esanetan, bizi bidea da erromesaldia, bizitzan gertatzen den moduan, bidean denetarik baitago. "Egun batzuetan alai ibiliko zara, besteetan triste... Eta Done Jakue Bidea amaitzen denean, bizi bidea hasten da", dio Gordoak.

Erligio baino gehiago, espiritualtasuna

Aterpe zainak uste du erromes guztiek zerbait bilatzen dutela bidean. "Bidea egiten denean, inguruan ez dago inor, ez dago ezer. Beraz, zeure barnera begiratzen duzu eta bidaia zeure barne bilaketa bihurtzen da. Batzuek ez dakite zeren bila doazen eta beste batzuek erantzuna ematen diote



hainbat galderari, bidaia egin baino lehen burutik pasatzen ez bazitzaienak", aipatu digu Jesús. "Fenomeno magikoa da, ezin da azaldu, eta ez naiz erlijioaz ari, espiritualtasunaz baizik".

Izan ere, erlijioa ez da Bidea egiteko arrazoi nagusia, Julio Mendaza Done Jakue Bidearen Lagunen Bizkaiko elkartearen

presidentearen iritziz. "Badira batzuk oso fededunak direnak eta Bidea oinutsik egiten dutenak, baina, egia esateko, oso gutxi dira. Aterpeetan Bibliak jarri ditugu erromesen eskura, baina normalean ez dute irakurtzen". Hala ere, horrek ez du garrantzirik. "Bidean errespetua da nagusi. Eta handik aurrera, elkartasuna eta laguntasuna sortzen dira, bai erromesen artean, baita erromesen eta eurak pasatzen diren herrietako lagun artean ere".

Mendazak hainbat istorio eta hainbat bizitza ditu oroimenean. "Brasildar batek Bidea amaitu nahi izan zuen, nahiz eta behatz bat minduta izan. Konpostelara heldutakoan, moztu behar izan zioten. Beste alde batetik, minbiziak jotako Ingalaterrako agure batek Bidea egin nahi zuen. Soinean testamentua zeraman eta, horren arabera, hilez gero, hiltzen zen lekuan bertan eman behar zitzaion lur". Horiek guztiek bizi bidea bilatu zuten, akaso, eta baliteke erantzunak topatu izana. Gureak argitu nahi baditugu, Done Jakue Bidea egin beharko da...

"Erromesak ohea eta irribarrea besterik ez du nahi izaten aterpean; haiek izanez gero, Maria Kristina hotela baino hobeto daude"

"Bidean errespetua da nagusi. Gero elkartasuna eta laguntasuna sortzen dira erromesen artean"





Mitoren sorrera



Argazkia: Santiagoko Turismoa

Done Jakue Jesusen dizipulurik sutsuenetarikoa izan omen zen eta horregatik Herodesek burua moztu zion Kristo osteko 42. urtean. Sinbolikoki oso garrantzitsua da, Jesusen doktrina defendatzeagatik hil zuten lehenengoa izan baitzen. Elezaharrak dioenez, bere jarraitzaileek gorpua ostu zuten Palestinan, eta aingeru batzuek zuzendutako itsasontzian Galiziara eraman zuten. Bederatzi mende geroago Done Jakueren hilotza Konpostelan aurkitu zen. Harrezkero, Europako erromes ibilaldi nagusia da eta milaka lagun joaten dira urtero Galiziara.

Bideak erromes gehiago hartzen ditu jubileu urteetan; hau da, Done Jakue eguna (uztailaren 25a) igandea denean. Aurten ez da horrelakorik gertatu, baina argi dago, Kalisto II.a Aita Santuak 1122an arau hori ezarri zuenetik hona, jubileu urte horiek bereziak direla.

Unescok Munduko Gizadiaren Ondare izendatu zuen Done Jakue Bidea 1993an. Hura jubileu urtea izan zen. Geroztik, erromesaldiak garrantzi handia hartu du eta 2006an, esate baterako, 100.000 erromes hurbildu ziren Santiagora.

BERTOKO

Zamudioako musika eskola

*Erdu, ikasi eta urten
joten gurez*

Gure musika tresnak josten ikasi gura duzu?
Trikitria, panderoa, dultzaina alboka eta txalaparta?

Matrikulak:
Irailaren 1etik 21era

Deitu telefono honetara:
985 58 92 58
975 74 95 88

(Orduak, 7 - 4,9)

Leinak, leinak, leinak...
Leinak, leinak, leinak...
Leinak, leinak, leinak...

www.leinak.com

Tasak: 48170 Zamudio, BIZKAIA
94 626 00 83
635 73 79 69

E.I.E. s.a.

Autonomia...

Kultura...

Soluzioak...

Web...

Aplicazio...

Diseño...

Marketing...

Erromesaren hitza



Pierrek gustuko du Bidean dagoen espiritualitatea



dira. "Guretzat oporrik onenak dira: ez dago jende gehiegirik eta harreman zuzena duzu janariarekin, jendearekin eta tokian tokiko kulturarekin".

Pierrek "herrialde askoko jendearekin harremanetan jartzea du gogoko", eta horregatik egin zuen lehenengo aldiz Done Jakue Bidea. Horretaz aparte, frantses horrek "kultur zein historia ondarea" ere atsegin ditu. "Katolikoa naiz, baina ez naiz elizkoia. Dena dela, gustatzen zait bidean dagoen espiritualtasuna".

Uztaila oso garai egokia da Bidea egiteko, hilaren 25ean Done Jakue Eguna delako. Ez da harritzekoa, beraz, bolada horretan Txorierriko errepideetan erromes asko ibiltzea. Guztiak dauke hitz egiteko prest.

Josephek, esate baterako, 23 urte ditu eta Zelanda Berritik dator. Friederike bere neska, aldiz, Alemaniakoa da. Euskal Herria gustatu zaie "oso berdea" delako eta Bidea egin dute "esperientzia desberdin bat izan nahi zutelako". "Bideak lasaitzen du, natura zoragarria ikusten da eta neurri txikiko turismoa da. Gainera, norberaren buruaz, etorkizunaz eta bizitzaz pentsatzeko aukera ematen dizu".

Victoria eta Antonio mendia gustatzen zaien Bartzelonakoak lagun batzuk dira eta haiek ere garrantzi handia ematen diote pentsatzeari. "Oso espirituala da bidea; ibiltzen den bitartean hausnartzea gomendatzen dugu". Behin baino gehiagotan egin dute bidea, baina hau da Euskal Herritik pasatzen duten lehenengo aldia, eta pozik agertu



Friederike alemaniarra da eta Joseph, Zelanda Berrikoa. Elkarrekin egiten ari dira Bidea



Victoriak eta Antoniok Bidean hausnarketa egiteko gomendatzen dute

Bertoko sukaldeak, kalitate oneko sukaldeak.

Kitchen sukaldeak

Zure sukaldean **%10ko DESKONTUA**

TXIMINTX

Bisitatu gure bloga

www.blogari.net/tximintx

Larrabetzuko jaiak Gora Andra Mari!



**Larrabetzuko
Udalak
jai zoriontsuak
opa deutsuez
herritar guztioi**



Larrabetzuko Udala



POL'TENA TABERNA

**LARRABETZU
BIZKAIA**

Andra Mari
Tfnor: 4558407



Remirez Instalaciones S.L.

ENPRESA INSTALATZAILEA:
BEROGAILUA, GASA ETA URA

Tel/Fax: 94 455 82 96 / 606 39 33 46
E-mail: remista@euskalnet.net

Iturikoetxe, 3
48195 Larrabetzu (BIZKAIA)



ETORKI TABERNA

*Eguneroko menua
Asteburuetan menu bereziak*

Andra Mari Kalea, 1
Telf: 94 455 81 95

48195 LARRABETZU
(Bizkaia)

FOTERI TABERNA



Andra Mari Kalea, 22
Teléfono: 455 80 98

48195 LARRABETZU-Bizkaia



**Klaseen hasiera:
Irailak 15**

LARRABETZU

MUSIKA ESKOLA

*Matrikula gabarik
ikastegi homologatua*

Erreale, 7 Behekoa

Tlf. 94.455.70.66

48195-LARRABETZU
Derion, Institutoan

- Hasiera musikala
- Hizkuntza musikala
- Gitarra
- Biolina
- Biola
- Biolonbelloa
- Kontrabaxua
- Kantu

- Klarineta
- Saxofoi
- Pianoa
- Soinua
- Txistua
- Triki-ixa
- Txilibista
- Combo:
jazz, latino...

- Perkusioak:
bateria, djembe, congas...
- Gehigarriak:
armonia, agitura,
musikaren historia
alokapainamendu,
gaitera-musika
orkestra, abesbatza

Intxurreta Larrabetzuko jai-batzordea:

“Jaiak herriko jendearentzat izan behar dira”

Pilota partidak, odoloste jana, herri kirolak, bertsolariak, erromeriak, antzerkia, jazz emanaldiak, txapelketak, bizikleta igoera, idi-probak, jokoak... Larrabetzuko Andramariak eta Emeteriek osagai guztiak dabez jaiak ezin hobeak izateko. Intxurreta jai-batzordeak lau urte daroaz horreek antolatzen eta **AIKOR!** aldizkariak bertako kide bategaz berba egiteko aukerea izan dau.

Zer kontau ahal deuskuzu jaien gainean. Nobedade handirik ez dago. Jai-batzordea orain dala lau urte osatu arren, kide askok urteak daroaz jaiak prestatzen, eta, egia esan, lan handia egin behar da eta azkenean erre egiten zara. Horrezaz ganera, nahiko geldituta gagoz ideien aldetik. Hori dala-eta, komizioan jente barriak parte hartzeko deia egin dogu, baina bizpahiru lagun baino ez dira animatu. Halanda be gaur arte antolatutako jaiak oso partehartzaileak izan dirala uste dogu, eta, horregaitik, antzeko formula bat errepikatu dogu aurten be bai.

Baina nobedaderen bat egongo da, ezta? Aipagarriena Potato taldearen kontzertua da, beharbada. Hori aurrekontutik kanpo gelditu jaku, baina Udalak bertan sartzea onartu dau. Aurtengoa Potatoren azken urtea da eszenatoki gainean eta edade guztietako jendearen gustukoa izan daitekeela kontuan hartuta, Larrabetzura ekartzea pentsatu dogu. Herriak be oparixto bat merezi dau, nire ustez.

Beste alde batetik, txupinazoa nahiko tris-tea izaten da: txupina bota eta listo. Aurtengo jaietan jaitiera egitea be bururatu jaku, nahiz eta oraindino oso zehaztuta ez izan. Lekuko antzeko bat egongo da eta iazko Koadrila Eguna irabazi ebenek mezua irakurri eta aurtengo irabazleei pasa-

tuko deutsee. Apaingarritzko zentro txapelketa bat antolatzea be proposatu da, eta Emeterietan ardi txakurren erakustaldia eta aizkora desafioa izango doguz lehenengo aldiz.

Eta aurreko urteetan erabat arrakastatsuak izan ziran ekitaldiak errepika-



ANDRAMARIAK

Abuztuaren 11n eta 12an, zapatua eta domeka

18:00: Futbol Zazpi Txapelketa

Abuztuaren 13an, astelehena

18:30: Umeen pilota partidak, Olarreta
Pilota Elkartearen eskutik

21:30: Herri-afaria / Kantuz Kantu

Abuztuaren 14an, martitzena

18:30: Pilota jaialdia (profesionalak):

4 ¹/₂ eskuz banaka:

Mikel – Antxia

Eskuz binaka:

Amarika – J. Gomez; Urdaniz – Zabala

21:30: Txupinazoa (Kalejira: Akarmari, txistulariak...)

22:00: Odoloste jana tabernetan

Jazz emanaldia, El Tercer Hombre taldeagaz

23:30: Erromeria, Amañur taldeagaz

Abuztuaren 15ean, eguaztena

12:00: Txistulariak

12:30: Herri kirolen erakustaldia: aizkolariak, Fausto Mugerza eta Elorriaga; Iparaldeko jokoak, Jose Mari Atutxa eta Tubi; harri jasotzailea, Joseba Ostolaza

13:30: Pintxo dastatzea plazan

18:30: Asto karrera

19:30: Bertsolariak balkoitik balkoira: Arkaitz Estiballez – Maialen Lujanbio

21:00: Bozza nova musika, Mauricio Meneses Cuarteto taldeagaz

22:30: Erromeria Laiotz taldeagaz

23:30: *Visa Vis* antzezlan, Trapu Zaharrak taldearen eskutik

24:30: Erromeria Laiotz taldeagaz

Abuztuaren 16an, eguena

11:00: Kalejira, Ondalan konpartsagaz: erraldoiak, buruhandiak eta kilikiak

12:00: Umeen jokoak

14:30: Umeen bazkaria

IRUSTA TABERNA

Josu eta Jose Migel
Gazte Egunean eta Jaietan
BUZZ

LARRABETZU
Tel: 94 455 84 77

Moro's Pub

Aliprox

Ondo para jaietan!

Iturikoetxe, 3 - 48195 Larrabetzu

tuko dozuez...

Bai. Iaz estreinakoa aldiz antolatuta genduzan Kantuz Kantu ekitaldia eta herri afaria eta oso esperientzia polita izan zan. Mahaiak eta aulkiak 150 pertsonarentzat eroan genduzan eta plazan 250 lagun inguru batu ginan. Pilota partidak izango dira barriro, izan be, iaz ezin izan genduzan antolatu aurrekontua zala-eta... Jazz eta funky emanaldiak orain urte bi hasi ginan egiten eta bertan ez da jendetza handia batzen, baina dagozanak oso gustura dagoz. Eta Ematerietan idi probak edukiko doguz. Oso arrakasta handia izaten dabe. Probalekua obretan dago. Ea ordurako prest dagoen.

Tapia eta Leturia klasiko bat izan dira Larrabetzuko jaietan; aurten ez dira etorriko...

Urteak daroez etortzen, baina jendea nekatzen hasi da eta aurten ez ekartzea erabaki dogu. Ez dakigu etorkizunean deituko doguzan barriro.

Nabarmendu beharko bazendu ekitaldi bat jai-egitarautik, zein izango litzateke hori?

Asto karrera, kalera jende gehien ateratzen dauan ekitaldia baita. Andra Mari kalea jendez gainezka egoten da egun horretan.

"Gaur arte antolatutako jaiak oso partehartzaileak izan dira, eta, horregaitik, antzeko formula bat errepikatu dogu aurten be bai"

Egitaraua herrian eta larrabetzuarrengan pentsatuz, batez be, osatu dozue...

Azken baten jaiak herriko jentearentzat izan behar dira. Ez dogu itxaroten kanpotarrak etortzea... Potato ikustera bai, beharbada. Beno, guk pilo bat disfrutatuko dogu eta etortzen diranak be ongi etorriak izango dira, baina herriko jaiak herrikoentzat dira, batez be.

Nola antolatuko da jai-gunea?

Betiko moduan. Eliza aurrean eszenatoki txiki bat jarriko da eta plazan, txosna bat eta eszenatoki handia. Plazan obretan gagoz eta faena handia da, baina ez dago beste bueltarik. Eta San Bartolome Loroño auzoan izango da eta Emeteriak, Gokolexean.

17:00: Antzerkia, Goloka taldearen eskutik
18:30: Goitibehera Txapelketa Lokala
19:00: Erromeria Gure Etxean
20:30: Blues musika, Blues de Luxe taldeagaz
22:30: Kontzertua: Potato eta erromeria: Lisker

Abuztuaren 24, barikua. San Bartolome

13:30: Bizikleta igoera
14:00: Paella Txapelketa
17:00: Briska Txapelketa

EMETERIAK

Abuztuaren 30, eguena

20:00: Txupinazoa – txistulariak
21:00: Odoloste eta txorizo jana
22:00: Erromeria, Erdizka Lauetan taldeagaz

Abuztuaren 31n, barikua

13:30: Bertsolariak: Xabier Amuriza – Andoni Egaña
17:00: Briska Txapelketa
20:00: Idi probak: Toñin Cotarelo (Samaño-Cantabria), Joseba Bikarregi (Loiu), Jose Elortegi "Txapas" (Barrika)
23:00: Erromeria, Egan taldeagaz

Irailaren 1ean, zapatua

12:00: Ardi txakurren erakustaldia
14:30: Marmitako Txapelketa
17:00: Mus Txapelketa
Umeentzako antzerkia, Antzezki-zuna taldearen eskutik
18:00: Xiba jokoak
19:30: Aizkora desafioa: Beñat Lekue eta Aritz Oregi
20:30: Barrenetxera bizikleta igoera
23:00: Erromeria, Jo & Hanka taldeagaz



TXISPAMENDI
OKIMDEGIA - GOZOYEGIA

*Enpatek
Gazteak egiten dituzte
gurean nirekin batera*

Gaztelumendi, 1 - Larrabetzu (Bizkaia) - 94 455 89 32

ONDO EROSI
JANARIA + FRUTA

ETXERA ERAMATEKO
ZERBITZUA
94 455 84 47

Andra Mari, 15 behea - 48195 Larrabetzu

arraindegia - pescadería
Hnos. VILLEGAS

Andra Mari, 20 behea
Tfn.: 94 455 71 42

48195 LARRABETZU
Bizkaia

Oguiza
Hortz Klinika

Kirurgia eta ortodontia
Ortodontia
Estetika eta bertokak, gaiturrak
erretze trinko eta mugakorrak
Hortz-elen tratamenduak
Dentistek eta ortodontek
Gaiturrak eta prebentzioa
Hortz-erretzearen
konponketak

Anguluri enparantza, 1 • 48195 LARRABETZU • Telefonoa: 605734538



ANKAPAZU
LARRABETZU LORONO BEHEKOA
(BIZKAIJA)
94 455 81 97

GAZTELEKU TABERNA



LARRABETZU
Andra Mari, 6 - Tel 94 455 88 97

BARATEGIA
J. ELORRIAGA
Etxeke berezitasuna: bertoko okela

Iturrikotxe, 7
Tfn.: 94 455 89 41
LARRABETZU

**LARRABETZUKO
ESTANKOA**



Tabakoa, prentsa, loteria, kiniela...

Andra Mari kalea, 1 LARRABETZU
T: 944 558 110

URAS
Estetika eta masajea

Aita Patxi Ugaldé, 14 behea
Tel.: 94 455 72 01 - 48195 LARRABETZU (Bizkaia)



**Larradent
Poliklinika**

Askatasuna Enparantza, 5 - Ba.
48195 - LARRABETZU (Bizkaia)
larradent@yahoo.es
T: 94 455 88 96





✓ Dietista
✓ Podologia
✓ Odontologia
✓ Masajista

Herri bideak berrerrabiliz Lezaman

Basobaltz Jai Batzordeak, Gailur Mendi Taldeak eta Lezama Bizirik Auzo Elkarteak Lezamako II. Mugarriz Mugarriko Lasterketa/Martxa antolatu dute. Ekitaldia irailaren 2an (San Antolin eta domeka) izango da, eta hasiera emango die herriko jaiei.

Lasterketa/Martxak Lezamako auzo bideak zaindu eta berreskuratzea du helburu eta iaz egin zuten lehenengo aldiz. Bide horiek desagertzeko zorian daude eta antolatzaileek behar-beharrezkotzat jotzen dituzte "ez soilik komunikabide moduan, baizik eta naturaz gozatzeko leku eta herriarren topagune bezala ere bai". Horrela, auzokideak, mendizaleak eta korrikalariak elkartu nahi dituzte eta martxan ipini Lezamako mugetan zehar, bide zahar zein berriagoetatik. Era berean, partehartzaileek historikoki oso inportanteak izan diren hainbat mugarri bisitatzeko aukera izango dute: Gaztelumendi eta Gangurengo tontorrak eta bertan 36ko gerrari lotutako Burdinazko Hesiaren bunkerrak; San Martin Baso parke botanikoa; Erdi Aroko Lezamako Dorrea eta Olazarreko antzinako burdinola (errota bihurtu zutena beranduago), besteak beste.

Martxa 8:30ean aterako da Andra Mari elizako plazatik eta lasterketa, 9:30ean. Biak Legina auzoan amaituko dira 14:00etan. Guztira 22,5 km izango dira ibilaldian zein lasterketan-, hala ere, martxaren azken kilometroetan ibilbide alternatibo bat (10 km) eta dortsalik gabekoa egiteko aukera emango da.

Denborak kontrolatzeko postuak eta anoa-postuak bost lekutan jarriko dituzte: Gaztelumendi - Km 5; Parke Botanikoa - Km 10, 5 (osasun laguntza); Lezamako Dorrea - Km 14,5; Biberroa - Km 19 (osasun laguntza) eta Legina auzoa - Km 24 (helmuta).

Lasterketan 200 korrikalarik baino ezin izango dute parte hartu, eta martxako partehartzaileen kopurua, berriz, mugagabea izango da. Partehartzeko gutxieneko adina 16 urtekoa da eta izen emateak 6 euro balio


du lasterketan eta 3 euro martxan. Lasterketan zein martxan kategoria bi egingo dira: bata emakumezkoentzat eta bestea gizonezkoentzat. Partehartzaile guztiek izango dute saria eta helmugara ailegatzen diren lehenengo lasterkariak -emakumea zein gizona- txapela eta garaikurra jasoko dituzte. Martxan denborarik egokiena eginguten duten gizonari eta emakumeari ere emango zaizkie txapela eta garaikurra. Izen ematea egiteko eta informazio gehiago jasotzeko, hurrengo korreoko helbide eta telefonoetara jo daiteke abuztuaren 1etik aurrera (Izen ematea irteeran ere egin daiteke goizeko 8:00ak baino lehenago):

lezamabizirik@lezamabizirik.com


686 41 57 58

gailurmt@euskalnet.net

662 13 70 09



- Gehieneko koto: Ganguren gailurra, 475 m.
- Gutxienezko koto: Andra Mari eliza (irteera), 30 m.
- Igoeran metatutako desnibela: 900 m.
- Jaitsieran metatutako desnibela: 750 m.
- Zoru motak: 8 km, asfaltoa edota porlana; 6 km, lurrezko pista; 10 km, baso edo mendiko bideak.



FRONTON TABERNA
ESPEZIALITATEA: TORTILLAK

Antzinekoak ezazak
48 198 Lezama
94 455 61 17

FMC Foret, S.A.

Zamudioko Fabrika
San Martín auzoa, 130
Zamudio (Bizkaia)
Tel.: (94) 452 50 50
Faxa: (94) 452 11 46

FMC foret

LAPIKO/s.l.
FABRICACIÓN DE PINTOS Y PINTURAS

LK

Bº. Garmatza, 67 - 48196 LEZAMA (Bizkaia)
Tel: 94 455 63 88 - 94 455 64 01 - Fax: 94 455 63 98

Lezamako jaiak!

Arretxaleko 200ko, 581 + 48196 LEZAMA
Tel.: 94 455 43 04 • www.restaurantegaztedi.com



**JATETXEA
Gaztedi**

- Gozuriak, 6:30etik aurrera
- Eguzuko menua
- Menu bereziak
- Asteburuko menuak

ZUTARRI S.L.

HARGINTZA, OROKORREAN.

ETXETAKO AURRALDEAREN HARRI LANDEKIDEN BARRIOKORREAN DUTEN
BERRITATUTIA, ETA BARRIOKORREAN, BARRIOKORREAN
DUTEN HARRI APANGARRAREN ETXETAKO, ETXETAKO...

Garaituta 125 mila erpila. 48196- Lezama - Bizkaia
Tel. 652.724.182 - Fax 944.554.275
e-mail: zutarri@leizama.com

GOIKO TABERNA Bar-Restaurante
Emiliano y Juanjo



- Menu Diario y carta
- Camareros y bodes
- Amplias comedores

R.º Garaituta, 1 • Tfn. y Fax 94 455 41 10 • 48196 LEZAMA - Bizkaia

LEZAMA MOTOR

- Carrocería
- Mecánica
- Electricidad
- Neumáticos
- Pre - J.T.V.

Reparación y mantenimiento
vehículos a domicilio en Lezama

Desmontaje y montaje
Permanentes sin compromiso

Polígono Industrial de Lezama, Parcela 10
Teléfono 4, planta baja. 48196 LEZAMA
Teléfono 94 455 41 10
Fax 94 455 41 10

CAFETERIA GRISSON

*Elvira eramateko janaria
Urtebetzeak egiten dira*

Antzerietik igandera zabala

Garaituta, 12 B. baje
Telefonoa: 685 75 11 05
www.cafeteriagrisson.com
48196 LEZAMA (Bizkaia)

ZORRIZKETAN
LEZAMAKO EUSKERA ELKARTEA

EUSKARAZ BIZI JAIK



BATAK BESTEAGAZ LEZAMARROK EUSKARAZ
Tel.: 94 455 60 76

TORREKO TXAKOLINA



1883-TIK TXAKOLINGILEAK
TORRE BASERRIA
Aretxalde auzoa
48196 LEZAMA
Bizkaia

José Antonio Dañobeitia ☎ 94 473 15 34
Pedro Maria Dañobeitia ☎ 94 676 05 20
Bodega ☎ 94 455 62 39

TXAKOLINA
LUISARRE



11% Vol. 75 cl.

Garaituta, 87
Tel.: 94 455 65 41
670 87 37 36

Bizkaiko Txakolina.
Denominación de Origen

Victor Camba Garaituta bildu, prestatu eta botilatzen
LEZAMA-SPAIN
N.º E. 40 / 4558 / 00 1.40

HARRI-BILBO HARGINTZA OROKORRA

LEHIO-ERTZEKO HARRIAK - KANTO HARRIAK - BARLASAIK - MAILAK
ARBUK - TXIMINIAK - HARRI-HORMITUAK - XAFLA-LANAK

HARRIOIAL BURANGON
E-mail: recuperaaharribilbo@euskalnet.net

LANDEIA:
Kumea Industrialdia, 210 + 48196 LEZAMA
☎ 94 452 10 71

ORRISTORIA:
Itxaropena, 2 + 48100 MUNGIA
☎ 94 674 33 40

OXANGOITI
Kutur Elkarte **TABERNA**



**Euskal presoak
etxera!**

Aretxalde, 54 - Tel.: 94 455 50 37
LEZAMA

Gora Andra Mari!



*Parte hartu
gure jaietan*



Ayuntamiento de
Lezama ko Udala

jaiak euskaraz bizi!

CONSTRUCCIONES LANDETANE, S.L.



ANDER ETXEBARRIA
MIKEL ETXEBARRIA

Tfnoa, eta faxa: 94 455 65 82
607 54 77 67
607 23 99 42

Garaioitza auzoa, 142
48106 LEZAMA
Bizkaia

TABERNA - JATETXEA

ESTANCO DAÑOBEITIA
VICTOR DAÑOBEITIA GUEREDIAGA

Tel.: 94 455 62 65
94 455 65 34

LEZAMA
(Bizkaia)

JAN-ToKi Jatetxea



La Cruz auzoa - Tel. 94 455 61 02 - Lezama (Bizkaia)



**Baserritarren Alkartea
Lezama S. Coop.**

Aretxalde, 21 BIS
48196 LEZAMA
☎ 94 456 60 16
e-mail: lezama@foc.org
Batzokiak: 144

*Pentsu
naturalak*



LOTERIA LEZAMA



BONOLOTUA
LOTERIA PRIMITIBOA
1-X-2
SARITZARRA
EUROMILLIOIAK

GABONETAKO ETA ERREGETAKO
LOTERIEN ERRESERBAK
ZERBITZUA, ENPRESENTZAT,
TABERNENTZAT, ETAB

ARETXALDE, 159 • 48196 LEZAMA (BIZKAIA) • TELEFONOA/FAX: 94 455 64 87



JANARIDENDA

Josune Zabala Goikoelexea

Garaioitza, 74
48198 Lezama - BIZKAIA

Tel. 944 556 248

Basobaltz jai-batzordea

“Egunean be sortu gura dogu

Basobaltz jai-batzordea orain dala urtebete osatu zan. Batzordekide gehienak emakumezkoak dira, “ia %80”; eta gazteak, “batez besteko adina 24 urtekoa da”; eta lagun-koadrila berakoak, “baina hau jai-batzorde zabala da eta gura dauan guztiak parte har dezake berton. Beste koadrila batzuetakoak be badagoz, eta kultura teknikaria eta hainbat herritar be bai”. Guztien gustuko jai-egitaraua osatzea ez da lan erraza, baina Basobaltzekoek gogoz eta ilusioz aurre egin deutsie erronkari.

Iaz lehenengo aldiz antolatu zenduezan jaiak. Zelango balorazioa egin daikeue? Lehenengo urtea izateko, egia esan, nahiko ondo urten ebazan gauzak. Eta gu ez ezik herritarrak be pozik lotu ziran. Logikoa danez, akatsak egin genduzan eta horreek barriro ez egiten ahaleginduko gara aurten.

Zein da jaiei egin deutsezuen ekarpena?

Aurreko urteetan lauzpabost pertsona baino ez egozan jai-batzordean, eta horrek zer ekarren? Ba, gauez, adibidez, hainbat gauzari adi egon behar baziran, egunean ekintza gitxiago zirala edota egozanak kaskarragoak zirala. Eta guk, gehiago garanez, esparru hori betetzea lortu dogu. Jai-batzordean koadrila ezberdinetako lagunak gagoz eta horri esker, partehartzea askoz handiagoa da. Herriko alkarteek be ekintzak antolatzen dabez... Halandaze be, lan asko dogu oraindino partehartze hori erabatekoa izan daiten.

Azaldu hori.

Jai-batzordea osatu zanean herriko alkarte guztiek bertan parte hartzea genduan helburu eta ez da lortu. Lehen esan dogun moduan, alkarteek ekintzak antolatzen



dabez, baina ez dira batzarretara etortzen eta ez deuskue laguntzen erabakiak hartzen. Eta guk eurak be parte aktiboa izatea gura dogu.

Beste alde batetik, aitortu beharra dago jende gitxi batzen dala Lezaman antolatzen diran ekitaldietan. Jaiei jagokenez,

giro handia dago gauez, baina egunean zehar ez. Eta guk egunean be sortu gura dogu jai-giroa. Horretarako, eta aurten Andra Mari Eguna zapatuan izango dala kontuan hartuta, ekitaldi sorta zabala eta lezamar guztien gustukoa antolatzen ahalegindu gara. Ea animatzen diran! Iaz Goi-

BASALBEITIKO TXAKOLINA

Biekako Txakolina
Biekako Txakolina

Geltitza guzua, 37
(LEZAMA)
94 455 61 46

Club Hípico Aretxalde

Pony club - Zaldiak ibazterak
Aizadinko lendeak - Apapilo zerbitzuak
Salto - Txangoak - Animalaren heziketa

Telefonaia:
IBON - 659 90 75 88

ANEXO BIDEA, 10 - 48940, LEZAMA

C.D.H. LOS AMIGOS DEL CABALLO

Ikastaroak
Bezeroen zaldiak zaintzea
Urte osoan zabalik

ESPEZIALITATEA: UMEAK, 6 URTETIK GORA

Olasarte bucinia, 131 - Guntzieta guzua - Lezama (Bizkaia) ☎ 94 455 65 11

jai-giroa”

tioltzako Egunean, esate baterako, giro ederra izan zan egun osoan zehar eta hori egundoko lorpena izan zan guretzat.

Eta zer ekarriko deuskue aurtengo jaiak?

Txakolin Eguna izango da eta Urrusti al-kartekoek dastatzeren bat prestatuko da-be. Betizu ikuskizuna be edukiko dogu, Mugarriz Mugarriko Lasterketa/Martxa, pintxo lehiaketa, antzerkia, umeentzako jolasak, kontzertuak, jubilatuentzako e-kintzak... Herritar guztiei zuzendutako jai-egitaraua osatzen saiatu gara, baina ez da lan erraza eta izan dogun ahalik eta ondoen egin dogu. Dana dala, norbaitek beste ekintza mota bat antolatu gura badau, badaki zer egin behar dauan: gurera jo, proposatu eta parte hartu! Prest gaude iradokizun guzti-guztiak kontuan hartzeko.

Zein da jaietako ekitaldirik erakargarriena?

Gaueko giroa eta Zorritzketanek antolaten dauan bazkaria, zalantza barik. Baina, beti, gustuen arabera: umeentzat Betizu ikuskizuna izango da, beste batzuentzat antzerkia, kontzertuak...

Jaiak lezamarrei eskaintzen deutseena argi dago, eta kanpotarrei?

Herri-giroa... Eta pintxoak jateko gogoa badozu, ba, pintxoak dozuz; seme-alabak badozuz, ba, Betizu ikustera; egarri bazara, ba, txosnetara... Denetarik dogu Lezaman. Animatu eta etorri! Ganera, ez dozu arazorik izango etxera itzultzeko gauez be trena dagoalako... Eta, osterantzean, jai-batzordekoek kotxez eroango zaitue etxera... Bai, zera! (kar, kar).



Delorean taldea

Jai-egitaraua

Irailaren 2an, domeka. San Antolin

08:30: Lezamako II. Mugarriz Mugarriko Lasterketa/Martxa

11:30: Hitza (Meza zena lehen). Ostein, trikitixa

14:30: Herri bazkaria

16:00: Mus eta briska txapelketak

Irailaren 7an, barikua. Odoloste Eguna

17:00: Betizu

18:00: Pilota partidak, Pilota Eskolaren eskutik

19:00: Dantzen agerraldia, Kurutze Dantza Taldearen eskutik

20:00: Pregoia

20:30: Trikipoteoa. Ostein, odoloste jana herriko tabernetatik

22:00: Txosnen irekiera

22:00-24:00: Goateke txosnetan

24:00: Berbena, Amaur taldearekin

Irailaren 8an, zapatua. Andra Mari

10:00: Txistulariak

12:00: Meza. Ostein, herri kirolak

12:00-14:00: Pintxo Lehiaketa eta trikitixa

14:30: Pintxo lehiaketaren sari banaketa

17:00: Bingo eta merienda, Adintsuen Elkartean

17:30: Umeentzako jolasak eta txokolatada

19:00: Kukubel antzezlan, Kukubiltxoren eskutik

20:30: Trikipoteoa

24:00: Kontzertuak: Potato, Delorean eta Ene Bada

Irailaren 9an, domeka

10:00: Txistulariak

12:00: Perretxiko erakusketa eta dastatzea eta txakolin dastatzea.

15:00: Herri bazkaria, Zorritzketan eskutik.

18:00: Euskal dantzak eta erromeria

Irailaren 10ean, astelehena. Mikel Zarate plazan

17:00: Umeentzako jolasak

20:00: Erromeria, Luhartz taldeagaz

Kukubel antzezlan, Kukubiltxoren eskutik



GARAIOLTZA, S.A.
PROMOZIOAK-ERAIKUNTZAK

LEZAMA

ETXEBIZITZAK, MERKATARITZA-LOKALAK ETA GARAJEAK

LEHEN MAILAKO ERAIKUNTZAK; LEHIATE HANDIAK;

ORDAINTZEKO ERRAZTASUN HANDIAK

TF.: 94 455 50 19

Garaioltza auzoa, 128 (behea)
Lezama (Bizkaia)



**Formación
y
Traducciones**

- Ingelesa maila guztietan
- Eskolak enpresetan
- Cambridge Unibertsitateko azterketak prestaketa, EOI...
- Itzulpenak hizkuntza ezberdinetan

Garaioltza 120 D
48196 LEZAMA
T: 94 455 64 69

Erremente 16
48150 SONDIKA
T: 94 453 64 08

amtraducciones@euskalnet.net
www.amtraducciones.com

Jose Luis Orozko 'Txelis', Goiherri sokatira taldeko presidentea eta entrenatzailea

“Talde moduan jarduten dogu eta hori igarri egiten da emoitzetan”

Zer kontauko deuskuzu lehiaketa horren ganean?

Suitza, Belgika, Ingalaterra, Irlanda eta Herbehereetako taldeak etorriko dira eta Getxo, Areso, Gaztedi, Mutriku eta Goiherri taldeek be hartuko dabe parte lehiaketan. Guztiak talde onak dira eta, ondorioz, maila handia egongo da. Ikustea mereziko dau. Tiraldien ostean, afaria egingo dogu eta 400 lagun inguru batzea espero dogu. Ea danak ondo urteten dauen!

Taldean hasikera-hasikeratik zabiltza, zein izan da taldearen bilakaerea?

Hamabi lagun hasi ginan 1977an. Lehenengotan goma zein lur ganean tiratzen genduan eta 1982tik 1990era bitarteko aldia oso ona izan zan guretzat, goman titulu guztiak lortu genduzan-eta. Tiratzaile asko egoan Goiherriin, eta talde bi osatu genduzan. Baina 1997an itxi egin geuntsan goman tiratzeari. Goma ganean urte osoan jardun behar izaten da eta gorputzak atsedena behar dau. Gaur egun 20 lagun gagoz taldean. Kopuru aldetik nahikoa da eta tiratzailearik gehienak gazteak dira. Datorren urtean zer gertatuko dan ez dakigu, baina oraingoz ondo gagoz.

Emakumezkoen taldea be baegoan...

Bai, eta tituluak be lortu zituan. Baina taldea apurka-apurka ixten joan ziran: batzuk ezkondu ziralako, lanagaitik, seme-alabakaitik... Batzuk emakumezkoen taldea barriro osatu guran dabiltza, baina lehenengo eta behin entrenamenduak egiteko leku egokia

Goiherri sokatira taldeak 30 urte bete ditu aurten eta, urteurrena ospatzeko, nazioarteko lehiaketa bat prestatu dabe arduradunek eta tiratzaileek. Lehiaketa hori abuztuaren 4an egingo da, goizeko 10etatik aurrera, unibertsitatearen ondoko atletismo pistan. Jose Luis Orozko 'Txelis' taldeko presidente eta entrenatzaileak horren barri emon deusku.

Testua: Itxaso Marina / Argazkia: Goiherri sokatira taldea



Hotel Tryp Sondika



Ezkontzak

OSPATU ZEURE EGUNIK
BEREZIENA GUREKIN

Jaun-hartzeak



TRYP

HOTELES

Carretera de la Avanzada, 2-4 • SONDIKA - 48150

Tel: (34) 91 530052 • Fax: (34) 91 4530620

E-mail: tryp.sondika@solmella.com

topau beharra dago. Izan be, emakumeek goma gainean tiratzen dabe eta kalean ezin da egin. Guk lehenengotan Unibertsitateko aparkalekuan entrenetan genduan, baina horrela ezin da...

Non egiten dozue gaur egun?

Goiherriko eskola zaharrean. Han gimnasioa eta landatxo bat daukaguz.

Zein izan da taldeak bizitako momenturik gozoena?

Asko izan dira, baina 2004an Estatu Batuetan eginiko munduko txapelketea irabaztea oso berezia izan zan guretzat, lur ganeko sokatira txapelketa bat irabazi genduan lehenengo aldia izan zalako. Herrian egundoko jaia egin eben.

Eta txarrena?

92-93 denboraldia, bakarrik zortzi jubenile-gaz lotu nintzalako. Baina aurrera egitea lortu genduan eta beste batzuk be etorri ziran gurera. Tiratzaileak oso gazte zirala hasi ziran taldean, eta gehienek jarraitu egiten dabe gaur egun.

Indartsu zabilte: ia txapelketa eta lehiaketa guztiak irabazten dozuez. Azkena Euskal Herriko Txapelketa izan da 560 kilotan...

Badira egunak eta egunak: gaur lehenengo lotu geintek ez bihar hirugarren. Lau talde gara oso maila antzekoa dogunak: Gaztedi, Mutriku, Areso eta Goiherri. Indartsuenak Gaztedi eta Goiherri gara, beharbada, baina apur bat bakarrik. Guk tiratzaile gehiago daukaguz eta horri esker, ez gara beti lagun berberen pentzura egon behar. Beste alde batetik, Goiherriren alderik onena da talde moduan jarduten dogula eta tiratzaileen arteko hartu-emona ezin hobea dala. Hori ezinbestekoa da, gero tiratzera joan ahal izateko.

Zelan ikusten dozu sokatira mundua?

Euskal Herrian, txarto. Talde gitxi dagoz. Lehen 50 inguru ginan eta orain sei inguru baino ez. Eta sei horreetatik, Gaztedi eta gu kentzen badozuz, beste guztiek tiratzaile

gitxi izaten ditue. Beraz, tiratzailearen batek alde egiten badau, taldea desagertu egiten da. Erakunde publikoek laguntza handiagoa emon beharko leuskigue, kirol hau egitea ez dalako bape merkea: esaterako, botek 30.000 pezeta balio dabe. Bidaia be garestiak dira eta ezinbestekoa da lokal egokiak izatea, entrenamenduak baldintza egokietan egin ahal izateko. Guk Erandioko Udaletik eta Gaiker enpresatik jasoten dogu laguntasuna, baina ez da nahikoa eta geure poltsikotik ipini behar izaten dogu diru zati handi bat.

Gauzak hobeto dagoz kanpoan?

Bai. Esate baterako, Ingalaterran eta Suitzan talde asko ez ezik kategoriak be badaditue. Laguntasuna handiagoa jasoko dabe, ziur asko. Nire ustez, hemen be egin beharko lirake kategoriak, talde barriei aukerea emoteko. Izan be, hareek ezin dira baldintza bardinetan lehiatu sokatiran urte gehiagotan gabiltzanokaz, eta, azkenean, itxi egiten dabe etsita.

Eta taldeen maileari jagokonez?

Euskal Herrian sei talde izango gara, baina euren parean gagoz. Orain dala gitxi, Londresen izan gara lehiaketa baten, eta emoitzak hor dagoz: irabazi egin genduan 600 kilotan, eta bigarren lotu ginan 560 kilotan.

Nazioarteko lehiaketeagaz aurtengo denboraldia amaituko dozue. Hurrengoari begira, zer?

Gabonetan entrenamenduei ekingo deutsegu. Horreek aurreratu beharko doguz, maiztzean Belgikara eta Ingalaterrara joango garalako hango lehiaketetan parte hartzera. Gure asmoa txapelketarik eta lehiaketarik gehienetan parte hartzea da, ahal dan guztietan. Munduko txapelketetan, barriz, ezin gara lehiatu: Nazioarteko Federazioak baldintza batzuk betetzera behartzen gaitu eta tiratzaileak eta Euskadiko Federazioa ez gagoz onartzeko prest. Politika kontuak dira horiek.

"2004an Munduko Txapelketea irabaztea oso berezia izan zan guretzat, lur ganean lortu genduan munduko lehenengo titulua izan zalako"

Palmaresa

• Gizonezkoen taldea:

- Goma Ganeko Munduko Txapelduna (Herbehereak, 1990ean)
- Lur Ganeko Munduko Txapelduna (AEB, 2004an)
- Lur Ganeko Munduko Txapeldunordea (Suedia, 1988an)
- Hirugarren postua Goma Ganeko Munduko Txapelketan (Euskadi, 1991n)
- Goma Ganeko Euskadiko 23 Txapelketa
- Lur Ganeko Euskadiko 3 Txapelketa
- 4 vs. 4 Lur Ganeko Euskadiko Txapelketa 1
- Goma Ganeko Bizkaiko 14 Txapelketa
- Lur Ganeko Bizkaiko Txapelketa 2

• Emakumezkoen taldea:

- Goma Ganeko Munduko Txapelduna (Euskadi, 1991n)
- Ganeko Munduko Txapeldunordea (Euskadi, 1991n)
- Goma Ganeko Euskadiko Txapelketa 2

• Junior kategorian:

- Hirugarren postua Lur Ganeko Mundu Txapelketan (Irlanda, 1992)
- Zazpi Probintzietako Txapelketa 2

GAMINIZ
JATETXEA



Tel/Fax: 944 317 025
email: gaminiz@gaminiz.com

Ibaizabal 212. parke teknologikoa
48170 Zamudio - Bizkaia
GPS: 2°51'41" N 4°31'13" W

ZAMUDIO-DERIOKO LURLANGILEEN ETXEA
ETXERENALDIA, GORRIKOTZ, HANDEKOTZ, HANDEKOTZ, HANDEKOTZ
BARRUTIAHARRI ZERBITZUA
Santi Mami jatetxea
Tel: 94 454 10 06
Fax: 94 454 10 07
48170 ZAMUDIO (Bizkaia)



SANTI MAMI
ALKATARRIA
Nerea Pedrosa Oñ. 37
0007. CANAÑADA ZAMUDIO 0910

San Mami, 1 - 48016
ZAMUDIO - BIZKAIA

Telefona: 94 454 10 06
Fax: 94 454 10 07
94 454 10 13

HARATEGIA * URDAITEGIA



Okela geuk produzitzen dugu;
egiten ditugu odolostak,
borroak, bistorrak, solomak...

Plater aurrekozinatuak

Oñi Kalea n° 4 • Tel: 94 453 10 17
48150 SONDIBA (Bizkaia)



Erremerleri kalea, 22
Telefona: 94 453 57 54
48150 SONDIBA (Bizkaia)
www.zerurena.com
e-mail: zerurena@zerurena.com

Zerurena Jatetxea

Nork esan dezake eltxoek ez diotela inoiz ziztatu? Intsektu horiek gizaki eta animalien odolez elikatzen dira eta nagusi dira urteko hilabeterik beroenetan. Euren eztenkadek hanturazko lesioak eta hazkura sortzen dituzte, baina kasu batzuetan gaitxotasunak ere kutsa ditzakete: denge, sukar horia eta entzefalitisa, esate baterako.

Eta udarekin batera eltxoak ere etorri dira

Eltxo emea odolez elikatzen da eta arra, berriz, fruten zukuz. Ziztatzen dutenean, emeek ahoa larruazalean sartu eta odola xurgatzeko lana errazten dien odol-hodi txiki baten bila ibiltzen dira. Intsektu hauek mekanismo sentikor bat dute, eta horri esker, elikagaia non dagoen jakiteko gai dira. Euren txuan antikoagulatetzat erabiltzen dituzten produktu kimikoak daude eta horrela, erraz xurgatzen dute odola. Era berean, txuak hantura eta hazkura bizia sortzen dituzten osagai narritagarriak ditu. Ziztatu eta handik sei segun-

dora sortzen dira hantura eta hazkura.

Eltxoek biktima bat edo bestea aukeratzeko hainbat faktore kontuan hartuta: larruazalaren kolorea, usaina, gorputzak botatzen duen gas karbonikoa, adina eta osasun-egoera... Gainera, izugarri gustatzen zaizkie gure gorputzaren beroa, izerdia eta hezetasuna.

Merkatuan hainbat aukera daude eltxoen eztenkadak saihesteko: limoi-usaina duten kandelak, eltxo-sareak, uxagarrak, ultrasoinuak erabiltzen dituzten detektagailuak, izpi ultramozko lanparak... Xaboi eta lurrin gozoak saihestea ere lagungarria da eltxoen aurkako borrokan.

Baina, gure eskura dauden bitarteko guztiekin saiatu arren, eltxoek ziztatu egin badigute, hazkura arintzeko erremediorik eraginkorrena amoniakoa erabiltzea da. Orokorrean eltxoen eztenkadak ez dira kezkarriak; hala ere, euren txuari alergia diotenengan hurrengo sintomak eragiten dituzte: sukarra, zorabioak, urdaileko mina, arnasestuka jartzea eta eztarri edo bular-estura izatea, besteak beste. Kasu horietan larruazalpeko adrenalina, zain barneko difenhidramina eta kortikoidak errezetatzen dira.

“Hazkura arintzeko erremediorik eraginkorrena amoniakoa erabiltzea da”



yedra floristas

Mikel Zarate, 2 - 48150 Sondika - Bizkaia
telefonoa: 94 453 14 57 - yedraflorista@hotmail.com

TXORIERRI Inmobiliaria

ZUBIRGANDIN GERTUEN DUGUEN INMOBILIARIA
ABDIKULARITZA - TASAZIOA
ALOKATZEPAN - ERKUALDUTZEAK
SALEKOSKETAK
SOLUGITUEN BILBAURAREN AGENTZIA

Bento Agirre, 2-GONTIA - DEUSTIA
Tel/Fax: 94 011 12 92 - 94 011 18 01
E-mail: txorierri@txorierri.net

CAFETERIA iAZi

Eguneko menua eta
Menu berezia

JATA KALEA, 2 - Telefonoa 94 454 29 56 - DERIO (Bizkaia)

Carnicería Charcutería iMAZ

MUNIZIALE ETORBIDEA,2
TLFNOA: 94 454 10 75
DERIO
Eskerrik asko
elortzeagailik

LOREGARBI

GARBIKETA ZERBITZUAK

Gutxi duxen, orokorrean
Autokorren komantxak.
Masasak jabi-irakilek
Holeysak eta kaskak
Urtu murrerak garbitzeki
Lantzerak
Zabur bitak

Boskale Plaza, 1 - R° Aldikoma
48160 DERIO (Bizkaia)
loreagarbi@euskalnet.net

Tel: 94 406 49 92
656 712 443
Fax: 94 406 49 93

MAPFRE DERIO

Paseo de la plaza 2/6
48160 Derio (Bizkaia)
T + 94 454 85 90
F + 94 454 05 90
artara@mapfre.com

Kao: Sumendiko sekretua, Elhuyar Fundazioaren eskutik



Elhuyar Fundazioak *Kao: Sumendiko sekretua* bideojokoaren euskarazko bertsioa kaleratu berri du. Ordenagailurako bideojokoa da eta 10 urtetik aurrerako gaztetxontzat pentsatua dago. Jatorrizko jokoa Tate multimedia enpresa poloniarrek egin zuen eta hainbat hizkuntzatar itzultzen ari da.

Jokoaren protagonista Kao kangurua da eta jokalaria hamar eremutan zehar lagundu behar dio bere misioa betetzen. Bidaia luze baten ostean, Kao uhartean duen etxera itzuli da atsedean hartzera, baina ezinezkoa izango zaio: bere lagun Tximista sumendi baten barruan erori da eta hor bizi diren labazko munstroak esnatu ditu. Munstro horiek uhartea suntsitzea erabaki dute eta biztanleak oso izututa daude. Kaoren eginkizuna da munstroak garaitzea, uharteko xamanak eman go dizkion argibideei jarraituz.

Jokalaria ez du aspertzeko aukerarik izango, izan ere, errealitate birtualeko lasterketak, puzzleak osatu, motordun txalupetan ibili eta airean borrokatu egin beharko du hamar eremutan zehar. Horrezaz gainera, jokoa erabiltzen den 3Dko teknologiarik esker ikus-entzunezko efektu izugarriak atzemango dira: palmondoen mugimendua nabaritutako da, Kaoren hanka-arrastoak ikusiko dira bidea egin ahala, eguneko eta gaueko zikloak bereiziko dira minutu tarte gutxitan...

Jokoaren xehetasunak www.elhuyar.org/kao helbidean daude eta jokoa probatzeko aukera ere badago bertan.

Larrabetzuko leku-izenak on-line jarri dituzte

Labayru Ikastegiak Larrabetzuren gaine-ko ondarea bildu dau eta, horretarako, Bizkaiko Foru Artxibategira eta Jabego Erregistrora jo dabe. Batu dan informazio etnografikoa eta toponimikoa Labayru Ikastegiaren webguneko toponimia atalean ipini dabe on-line (www.labayru.org). Guztira Bizkaiko Onomastika

Datutegia izeneko Ikastegiaren datu-basean uriaren gaine-ko 1.245 fitxa ageri dira.

Datuak bilatzaile batek lagunduta kontsultatuko dira, Etxebarri, Elorrioko eta Lezamako udalerrietakoakaz batera. Larrabetzuko Udaleko webgunetik loturea egingo da Labayru Ikastegiko bilatzailerera.

MARMOLGINTZA
GOYO
SUKALDE-GAINEKOAK
OBRAK ETA HILERRIAK
Ugaldeguren I ind., 18-B nahka
48160 DERIO (Bizkaia)
Tfnoa.: 94 454 02 93 - Faxa: 94 454 50 63

desira
Belleza en Ologado Derio
Lifting mediante radiofrecuencia
Fotodepilación
Bronceado "sunless"
Ozonoterapia
Masaje terapéutico
Decoración de uñas
Urbe Ikala 6, eskualdeko lorra - DERIO - Telefonoa: 91 151 35 73

Inmobiliaria
ETORKI
Mungialde etorbidea, 4 bajo
Tel. 94 454 50 53
Móvil: 607 32 35 53 48160 DERIO

CORMORAN
Regalos y Complementos
Gernikako arbol, 2 * 48160 DERIO * Tel. 94 106 05 24

eleizalde
Kafetegia
Lainemendi, 7
(Lizarrin auzoan)
48160 DERIO (Bizkaia)
Tfnoa: 94 454 52 88

DERIO FRUTADENDA
Sallube, 8
Tfnoa: 605 77 12 62
DERIO

San Tomas ermitea 1796ko suen (etxeen) erroldan agiri da. Gotikoa da eta planta angeluzuzena dau. Hormak manposteria-koak dira, hegalak izan ezik. Horreek harlanduzkoak dira. Ermitan hiru irudi dagoz: San Tomas, San Anton abadea eta San Martin. Ermita honen jai eguna abenduaren 21a da; beraz, egun hori noiz jausi eta osteko domekan ospatzen da. San Martin, barriz, Zamudioren zaindaria da.

Sandoikurrekoa eta Sandoikabarri baserrietako bidetik jarraiturik, Lekunbarriko karabia ezkerretara itxi eta Julerantz abiatuko gara. Daño auzoan, Urresti mendian, San Migel ermitea dago. Ermita hori "Daños" gisa agiri da 1588ko dokumentuetan; 1672an kanpantorrea eukala aitatu zan. 1984an barriztau egin zan. Haren jai eguna irailaren 29a da.

Arginena eta Etxeandia baserrien atze-

Zamudion zehar

Orain oporrak heldu diranean eta eguraldi ona datorrela emoten dauenean, denpora librea hemengo inguruak eta ondarea ezagutzeko aprobetxau leiteke. Horra proposamen bat, ibilaldi bat Zamudion zehar. Ibilaldi honek San Tomas ermitea izango dau abiapuntu.

tik Geldo auzorako bidea hartu eta Berreaga mendiaren magalean San Bartolome ermitea ikusiko dogu. Lau dira han dagozan irudiak: San Bartolome, San Paulo, Jesusen Bihotza eta Ama Birjinea.

Iturrizak idatzi eban lez, San Bartolome ermitea Berraga mendian bertan egoan eta

Laukariz nahiz Geldoko auzotarrak joaten ziran hara. Halan be, auzo biren artean eztabaidaren bat izan zan eta laukariztarrek San Bartolome irudia hartu, eta Santiago eleiza eraiki eben beherago. Orduan Geldoetakoek hemen aitatutako ermitea eraiki eben.

San Miguel ermitea



ATARRABI

Errementari, 11 - 48150 Sondika
Tfnos.: 944 531 928

FONTANERIA DOBARAN

Berriztatze - lanak:

- Etxebizitzak
- Suetak
- Bainugelak

☎ 94 453 3860
☎ 658 75 9084

Mitsina, 4 - 48150 SONDIKA

Goiri '78 S. L.
Servicio Oficial

POL. IZARZA
Tfnos.: 94 453 25 15
94 453 39 31
48150 SONDIKA (Bizkaia)

harategia - urdaitegia
MIGUEL

ESPEZIALITATEAK:
URDAIAZPIKOA
ETA GAZTA

Mikel Deuna, 7 • DERIO 48160 • T: 451 52 94

lurrindegia MAMEN mertzeria

Galika kalea, 6. Derio. 94 454 28 60 / 656 79 38 25

LEIRE BEGOÑA
HEAPAINDEGIA

UNISEX HEAPAINDEGIA
ESTETIKA
ORDUTEGI JARRAITUA
LASER-DEPIAZIOA

Mungialde etorbidea, 90 DERIO
T: 94 451 26 52

Santo Tomás ermitea



Kadaltso errotea



Beste alde batetik, Berreaga mendian bertan badira antxinako babesleku bat eta gotorleku bat. Leku horretan indusketak egin ziran 1989an eta 1990an, eta ermitako hondakinen alboan horma zati bat eta eraikin batzuk topau ziran. Aztarnak II. Burdin Aroan (Kristo aurreko 6. mendetik 3. mendera bitartekoak, gutxi gorebehera) kokau leitekez. Harresitik kanpo, gotorlekuari lotutako nekropolia dago eta hilarri anegrafiko protohistorikoak aurkitu dira han.

San Bartolometik Zamudiorantz jatsiko gara. Derioko lurretan Kadaltso errotea dago. Errota hori 1622koa da eta "Arzubia" zan haren antxinako izena.

Kadaltsotik paraje, Artea errotea dago. Dokumentuetan 1548koa dala agiri da baina arterakoagoa dalako susmoa dago. Eraikina burdinola zan hasiera baten, eta Zamudiotorreko jauntxoia zan haren jabea.

Artea errotatik Zamudioko eleizaldera joateko, Arroetako aldatza igon behar da. Arroa burdinoletatik ateratzen dan sarra da eta hortik dator aldaparen izena.

Testua: Amagoia Guezuraga

San Bartolome elizako aldarea



"LAIA HOTEL MUSEOA"



Derion kokatuta, berau da hotel ekologiko bakarra energia berriztagarrien sistemei esker.

Hidromasajeaz hornitutako 38 gela ditu. Gainera, euskal gastronomia dastatu ahal izango duzu, antzinako errezetak zein sukaldaritzarik berritzaileena.

Fitness eta spa zentroak relax zirkuitu hau eskaintzen dizu: sauna, vaporiuma, jacuzzia, dutxa inguratzailea eta automasaje-ko koltxonetak.

Parke teknologikoa

Eraikina 806. Derio (Bizkaia)
Tel. 94 431 76 80
Fax 94 431 76 81
laia@saviat.net
www.saviat.net

**Aurreko
galderaren
erantzuna:**

Iraultza Taldea

Irabazlea:

Mariasun Aurrekoetxea



LEHIAKETA

Asmatu galdera eta bi lagunentzako aste-buru batean gau bat pasa Laia Hotel Museon, gela bikoitza, buffet-gosaria eta Spa zirkuitua, barne.

Hilabete honetako galdera zera da:

**Zenbat ekoizle
ekologiko batu
ziren Larrondon?**

Bidali erantzunak, hilaren 15a baino lehenago, telefonoz (944523447), e-mailez (aikor-txori@yahoo.es), edota postaz (**AIKOR!** aldizkaria, Aresti kalea 2, 48016, Zamudio).

(Saria Laiaren eskaintza duzue).

Nire Autoocasion NA



IMPORTAZIOA ETA SALMENTA

CERNIKAKO ARBOLA 10 (TRABERA) 48160 DERIO-BIZKAIA

Mobilak: 686 97 06 41 649 16 77 12
Telefonoa-Fax: 94 454 51 02
www.nireautoocasion.com info@nireautoocasion.com

OTIKA IKUSLAN

Dieturreko graduatuak
Kontakto lekuak
Eguzkitako haiturrekoak
Tehenengo markak

Oiz kalea, 3 floor: 94 452 28 18 ZAMUDIO

BAR TXIKI

ESPEZIALITATEA,
TORTILLAK

Lehendakari: Mireia Plaza, 6
48170 ZAMUDIO (Bizkaia)
Telefonoa: 94 452 14 68

TALLERES JUAN ANDRES

AUTOMOBILAREN ELEKTRIZITATEA ETA MEKANIKA
PUNTUAN JARTZEA

Torrearragoiti Ind., 8 - 216 Pab.
Tel.: 94 452 07 09 48170 ZAMUDIO (Bizkaia)

Merceria Karmele

Txarriemika biarbidea, 7 - ZAMUDIO T: 94 452 02 49

LEANDRO LANDETA



HARAGITEGIA-URDAITEGIA

Oiz Kalea, 1 • Tel. 94 452 00 69 - 48170 ZAMUDIO

Sukaldaritza

Bakoren bazterra

Gure alde animalia atera



*Iñaki Suarez,
sumillerra*

“Ukitzea, usaintzea, dastatzea, ez dira zentzumen estetikoak, aberetiarak, baik. Abere gaitzen” (R. Pérez de Ayala. *La pata de la raposa*). Egon lasai, lagunak, ez dut ezer ezmorala proposatu nahi; hausnarketa apal bat planteatu nahi dut. Udan gaude: sasoi honetan eguneroko errutinak, estresak eta bizipen eskizofre-

nikoak bazterrean edo bizikletaren aparkalekuan uzteko aukera dugu. Bizipen horiek gure erlazio sozialetan nagusi diren bi zentzumenetan oinarritzen dira: ikusmena eta entzumenena. Sasoi honetan guretzako denbora gehiago dugunez, baita gozamenerako joera gehiago ere; beharbada, beste zentzumenak aktiba ditzakegu, nahiko herdoilduta eduki baititugu. Eta horiekin gure existentziaren alde aberetiarak berreskuratzea. Edozein dela ihes egiteko aukeratu dugun tokia, itsasoko kresala usain dezakegu, edo Gaztelako “escobajoa” (garia eta lasto sikuaren usaina), baso umelaren edo asfaltoaren mineralak. Area ukituko dugu, edo harria, edo mineralak edo haitz karetsua... edo herri bakoitzaren zaporea dastatu, bere gastronomiaren bitartez. Eta hori guztia, aikorlagunak, ardoa bezalakoa da, ardoa ere bada. Horrela, goza gaitzen aukera horiekin guztiekin, negua izango baitugu arrazionaltasunarekin elkarrekin bizitzeko. On egin!

Etxeko sukaldaritza

Barazki-pudina

Osagaiak (6 lagunentzat):

- Azenario txiki bi
- 100 g leka
- Zainzuri bi
- Ilarrak (lata txiki bat)
- 6 arrautza
- Litro bat esnegain
- Zurrustada bat tomate frijitu
- Gatza
- Margarina edo gurina
- Ogi birrindua
- Budin-molde handi bat

Prestatzeko era:

Barazkiak egosi eta txikitu egingo doguz. Arrautzak, esnegaina eta tomatea ontzi baten ipini eta gatz apur bat botako deutez. Danak ondo irabiau ostean, barazkiak gehituko deusaguz nahasketeari.

Moldea margarinaz igurtziko dogu

barrutik eta ogi birrindua be botako dogu, gero budina ondo atera ahal izateko. Moldea nahasketegaz bete eta laban sartuko dogu maria bainuan; laban 30-40 minutuan izango dogu 180 gradutan.

Hotz zerbitzatuko dogu, maionesa apur batez lagunduta.



*Maite Lekerika,
sukaldaria*

GOMENDIOAK

Amagoia Gezuraga

LIBURUAK

Jazintoren giltza erraldoia

M. Mendoza

Katuaren irribarrea

P. Sagarzazu

Atearen atzean

A. Kazabon

Erremateko tiroa

M. Yourcenar

Kaxa huts bat

B. Sarasola

Tunela

E. Sabato

Gurs el campo vasco

J. Chueca. Bigarren Mundu Gerran Mauthausen, Auschwitz.....eta Gurs izan ziren presoek kontzentrazio guneak.

Gursen, Zuberoako mugan, 3.000tik gora euskaldun preso egon ziran. Larrabetzuko Pedro Meabe Zorroza, Roman Loroño Arteaga, Lezamako Andres Ereño Dañobeitia, Sondika-ko Jose Maria Isasa Mendizabal... beste askoren artean.

MUSIKA

Donostiako jazzaldia (uztailak 24-29)

Bidasoa Folk (Hendaia, Irun, Hondarribia, abuztuak 24-26)

Azkena rock festival (Gasteiz, abuztuak 31-irailak 1)

Getxoko Folk jaialdia (irailak 5-8)



DENBORA PASA

LETRAZOPA

A	Ñ	T	N	Z	B	L	T	O	R	T	E	A
O	U	Y	E	L	U	A	X	M	F	Y	L	Ñ
N	P	K	D	J	B	S	F	P	M	G	P	H
A	X	N	A	D	I	E	R	A	Ñ	B	E	A
R	I	A	K	R	E	U	Z	T	N	E	P	O
R	E	J	I	P	M	T	H	J	O	N	U	K
U	X	U	T	F	A	A	D	D	Ñ	Z	L	I
E	R	T	S	R	G	S	E	K	D	M	P	F
T	Z	D	O	B	N	H	B	J	I	K	E	N
Y	S	K	O	R	O	T	Z	A	E	L	A	H
R	E	U	X	L	S	U	Y	O	I	P	G	J
B	T	S	M	Z	Ñ	G	K	G	R	H	F	O

M	R	Y	A	I	Y	B	Ñ	A	K	N	L	D
U	U	Z	P	X	S	X	U	O	I	J	P	B
S	Y	A	N	K	E	A	X	S	O	P	M	X
T	A	X	T	N	U	R	T	U	T	S	O	Ñ
U	T	B	U	K	P	E	Z	L	F	E	I	R
R	H	B	Z	A	S	A	F	D	Y	L	N	B
R	D	F	T	M	T	H	H	A	E	M	D	A
E	G	X	E	J	I	N	M	R	L	D	N	D
G	A	J	Ñ	G	D	H	G	R	J	E	P	A
S	U	R	H	O	K	U	L	A	Z	S	N	R
P	M	I	T	J	L	O	X	N	K	B	R	F
F	A	E	P	A	R	R	E	K	A	G	Ñ	E

Jarraitzen dogu baserrian, goiko letrazopan ia gai zaren **ganaduagaz zer ikusirik daben 7 gauza** aurkitzen*. Kontuan hartu egizu Txorierrin esaten dan eran idatzita dauzela.

* Derioztarren euskara liburutik jasoa.

Ezkerraldean **AIKOR!** 61. zenbakiaren erantzuna. Behi baten zazpi atal.

euskal herriko d-generazioa



aritz eta nagel
aizkor! 0710 saragarriaren 20

Agenda

Antzerkia eta filmak



Sondika

–Artea. Irailaren 22an, 22:00etan, Kultur Etxean.

Erakusketak

Larrabetzu

–Mikel Valverderen Irudiak. Irailaren 17tik 28ra, Anguleri kultur etxean.

Ikastaroak eta tailerrak

Sondika

–Udal ikastaroetan izena ematea: irailaren 7tik 13ra, liburutegian.

Larrabetzu

–Gidatze ekonomikoari buruzko doako ikastaroak. Irailaren, 22an, 10:00etatik 14:00etara, Goikoelexaldeko txokoan. Izen ematea: irailaren 3tik 6ra.

–Udal ikastaroetan izen ematea: irailaren 17tik 19ra.

Irteerak

Sondika

–Kilometroak (urriaren 7an). Izen ematea: irailaren 3tik urriaren 2ra, liburutegian.

–Port Aventura-Saloura (urriaren 12tik 14ra bitartean). Izen ematea: irailaren 7tik 13ra.

–Nafarroa Oinez (urriaren 21ean). Irailaren 3tik urriaren 16ra, liburutegian.

Zamudio

–Ibilbide literarioa Tolosatik. Irailaren 9an, liburutegiak antolatua.

Larrabetzu

–EITBra (jubilatuentzat). Irailaren 24an, 09:00etan. Izen ematea: irailaren 10etik 14ra.

–Kilometroak (urriaren 7an). Izen ematea: irailaren 3tik urriaren 3ra.

–Nafarroa Oinez (urriaren 21ean). Izen ematea: irailaren 3tik urriaren 17ra.

Jaiak

Sondika

–Santa Kurtze. Irailaren 14tik 16ra.

Loiu

–Larrondoko jaiak. Abuztuaren 31tik irailaren 2ra.

Derio

–Santi Mami. Abuztuaren 16tik 18ra.

–San Migel. Irailaren 21etik 30ra.

Zamudio

–San Antolin. Irailaren 1etik 3ra.

Kirolak

Zamudio

–Zikloturista. Irailaren 15ean, 09:30etik aurrera, Bidekoetxe parkean.

–Derio-Zamudio lasterketa. Irailaren 16an, 11:00etan, Derioko kiroldegian.

Bestelakoak

Sondika

–‘Nire autorik gabeko Sondika’ ekintza. Irailaren 22an, 11:00etatik 19:30era, Sabino Arana kalean. Lantegiak, jolas-parkea, txirrindulari ibilbidea, txorizo jana...

Lezama

–Mugikortasunaren Astea. Irailaren 26an, 18:00etatik aurrera, plazan eta pilotalekuan. Tetrafit tailerrak, bike trial erakustaldia...

Larrabetzu

–Gazte Eguna. Uztailaren 28an, Larrabetzun, Hori Baik antolatua.

–Mugikortasun Iraunkorraren jaia. Irailaren 21ean, 16:00etatik 19:30era, eskolako patioan (euria bada, pilotalekuan). Puzgarriak, erakusketa, triziklo ibilbidea...

Garbiketak
Ekotxori
Telefonuak:
630 71 25 61
94 452 33 91
Hizuntziako Zentroa, 1
48170 ZAMUDIO (Bizkaia)
Faxa:
94 452 33 91

Kudeaketarako Sozietatea
Birziklatzeko Zentro Aurreratua
SOGECAR
Tratamendu larroak
-Erabilgaitako olioak
-Agortutako taladrinak
-Disolbatzaileak
-Automozio
hondakinen kudeaketa osoa
Torrelarragoiti ind. z/g 48170 Zamudio
Telefonoa: 944 977 177 - Faxa: 944 522 619

GORBEIA MERTZERIA
Gorbeia katea, 7
ZAMUDIO
94 655 90 08

Bocateria
3 otarteko
Pizzeria
ETXEE ETXEN ZERBITZUA IA TXORIERRI OSOAN
ZAMUDIO
TLF: 94 452 11 42

Garmendia
ardoak
Pirra pol., P-3B
ZAMUDIO
Tel/Fax: 94 452 00 49

LEKES
Taberna Jantokia
San Mames, 1
48170 ZAMUDIO
Tel: 94 454 58 94
Ondategi: Garrik 21akoa
Asarotzeko eskualdea
Eguneko Menua
Karta (ecceceba)
Berraginh

LIBURUDENDA PAPERDENDA
ZAMUDIO
Gorbea kalea, b
Telefono / Fax: 94 452 29 10 48170 ZAMUDIO (Bizkaia)


MARMOLERIA
TXORIERRI
MARMOLDEGIA
Sukalde eta bainugeletako harriak
fatxada, atariak eta hilerriak
Torrelarragoiti ind., P. 7B - nabe 2.
48170 ZAMUDIO (BIZKAIA)
Tel / Fax: 94 688 01 41 - 2

OSO ALTU EGITEN DUGU HEGAZ

Gure helburua sektore aeronautikoan liderrak izatea da



Gidaritzaren, gure pertsonen inplikazioaren eta hobekuntza jarraikorraren bitartez, berrikuntza eta ingurumenarekiko errespetuarekin batera, Bikaintasuna etengabe bilatuz.



GRUPO

Industria de Turbo Propulsores, S.A.



GARAJE AURTENETXE, S.A.

Lorezaintzarako era guztietako tresneria dugu...
neurrirako zerbitzua eskaintzen dizugu

Kubota



Autonomía, 57
48012 Bilbao (Bizkaia)
Tel: 94 427 29 18
Faxa: 94 427 29 18

Aretxalde auzoa, 105
48196 Lezama (Bizkaia)
Tel: 94 455 62 66
Faxa: 94 455 65 66

HONDA
The Power of Dreams

SABO

OREC

Oleo-Mac

VIKING

STIHL